



**i Leioa** berdintasunetik  
desde la igualdad !

## HIRIGINTZA AZTERKETA TEKNIKOA

Leioa, 2018.

Norentzat:



Nork:

hiri .Dunakaldea



Noren partaidetzarekin:



INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA  
ETA ETXEBIZITZA SAILA  
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,  
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

Norekin:





## GAI ZERRENDA

### 1. Sarrera eta azalpena

### 2. Marko teorikoa

- 2.1. Genero ikuspegia hirigintzan
- 2.2. Hiri barneratzaile eredua

### 3. Helburu orokorrak

- 3.1. Tokiko pertsonal teknikoari trebakuntza
- 3.2. Elkar-lanean landutako diagnostia
- 3.3. Hirigintzarako dokumentuaren idazketarako proposamenak

### 4. Leioako udalerria

### 5. Dagoen dokumentazioaren analisisia

- 5.1. Indarrean Leioako hiri antolamendurako plan orokorra (HAPO)
  - 5.1.1. Sarrera
  - 5.1.2. Alderdi politikoek egindako iradokizunak
  - 5.1.3. Bizilagun eta elkarteek egindako iradokizunak
  - 5.1.4. Hazkundeari dagokionez, hartutako alternatiba (korporazioak hartutako irizpideak)
  - 5.1.5. Proposamenaren deskribapena
- 5.2. Genero ikuspegitik egindako hirigintza diagnostia
  - 5.2.1. Segurtasunaren inguruko hirigintza diagnostia eta Leioako genero ikuspegitik duen irudikapen sinbolikoa
  - 5.2.2. Genero ikuspegitik egindako tokiko segurtasun ikuskaritza (2015)
- 5.3. Leioako Merkataritza Biziberritzeko Plan Estrategikoa (2013)
- 5.4. IKERFELen AZTERLANA – Merkatuaren Ikerketarako eta Marketing estrategikorako Institutua (2013)
  - 5.4.1. Leioan bizitzearen inguruan
  - 5.4.2. Udalerraren zehaztasunezko balioespena
  - 5.4.3. Proiektuak Leioan
- 5.5. HERRIGUNE
  - 5.5.1. Haurren Hirien Sarea – Red Vasca De Ciudades Con La Infancia
  - 5.5.2. Umeen kontseilua
  - 5.5.3. Bizibideak

### 6. Ondorioak

## 1. SARRERA ETA AZALPENA

Honoko hirigintza analisi teknikoa, genero ikuspegitik abiatuta garatu den “Leioako Plan Orokor berriaren diagnostiko, trebakuntza eta planteamenduaren lanketa”rako burututako azterlana jasotzen duen dokumentuetako bat da, zeina Dunakaldeak egin duen, urbanIN kolektibo eta HiritikAt kooperatibaren laguntzarekin.

Lanketa hau, [Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Kontseilariaren 2017ko Irailaren 6aren ordenaren baitan kokaturik dago, eta bertan oinarri arautzaileak ezarri eta 2017ko jardueran udal plangintzan genero ikuspegia integratzeko diru laguntzen kontzesioa iragartzen dira.](#) Euskal Herriko Agintaritza Aldizkarian, 2017ko abenduaren 20an argitaratutako ebazpenaren II ERANSKINean [\[Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Kontseilari-ordearen 2017ko abenduaren 20ko EBAZPENA, zeinaren bitartez ebazten eta ematen den jakitera 2017ko Irailaren 6an aurreikusitako diru-laguntzei buruzko kontzesioa, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Kontseilariarena, 2017ko Irailaren 6aren ordenaren baitan kokaturik dago, eta bertan oinarri arautzaileak ezarri eta 2017ko jardueran udal plangintzan genero ikuspegia integratzeko diru laguntzen kontzesioa iragartzen dira.\]](#)Leioako Udalari diru-laguntzen kontzesioa jasotzen du.

Orden honetako 1go artikulua – Xedea, 2garren puntuan, *“hirigintzarako baliabideetako genero ikuspegiari dagokionean, zuzenketa neurriak kontutan hartzen dituzten proposamenak dauzkaten analisi, diagnosi eta ondorioak lantzen dituzten dokumentuen lanketa”* azpimarratzen ditu diru-laguntza jasotzaileen artean. Hartara, Leioako udalerrirako burututako honoko txostenaren edukiak xedearekin bat egiten du erabat, egiturari erantzuna emateaz gain, baita artikulatuan aipatzen diren 3 atalei ere:

- ✓ 1. Dokumentua: ANALISIA [Hirigintza analisi teknikoa]
- ✓ 2. Dokumentua: [Elkar landutako diagnostia eta trebakuntza pertsonal teknikoa]
- ✓ 3. Dokumentua: ONDORIOAK [Hirigintzarako dokumentua idazteko proposamenak ]

Honoko hirigintza analisi teknikoaren dokumentuak Leioan indarrean dirauen HAPOn inguruan dauden dokumentuak lantzen ditu, baita bertan landutako hirigintza gaiekin erlazionatutako txosten eta memoriak ere. Bai diagnosian eta baita bukaerako ondoriotan kontutan hartu beharreko lehenetsuneko gaiekin amaitzeko.

## 2. MARKO TEORIKOA

### 2.1. GENERO IKUSPEGIA HIRIGINTZAN

Genero perspektiba hirigintzan, eguneroko bizitzak dauzkan beharrak hiri-kudeaketa eta hirigintza planifikazioan aintzakotzat hartzen joateko ahalean oinarritzen da. Emakumeak hiriaren inguruan daukaten esperientzia aintzat hartzea ere suposatzen du horrek, alegia, batez ere historikoki bere gain

izandako genero rolaen ondorioz daukaten jakinduria tekniko eta gaitasuna, 'hirigintzan aditu' gisa. Bai helduen eta baita hurren zaintzan duten esperientzi honengatik beraiek hiriari eta hiritik begiratzeko dituzten erak anitzak izatea ahalbideratu du; eta generoaren ikuspuntutik pentsatzea, ez dela soilik emakumeen taldeez aritzea, baizik eta herri eta auzotan bizi diren hainbat gizataldetako kide erabiltzaile ere kontutan edukitzea. Gizatalde ororen beharrak eta berauek hiria osatzen duten espazioei emandako erabilera aintzat hartu ahal izateko, ikuspegia zabaltzean datza, neskak, atso, mugikortasun urriko pertsona, pertsona itsu eta beste horrelako hainbati buruz aritzean datza. Gaur egungo gizartearen gaurkotze bat ere bada, non hiritargoa anitza eta aldakorra den, eta beraz, ezin liteke hiritar mota estandar bakar batetan ardatzu. Pertsonen arabera hirigintza da, finean.

Azkenik, begi bistakoa izanik ere, generoari begiratzek ez du emakumezkoen taldea emakume "mota" bakar batetara mugatzen, gaur egungo gizarte patriarkalean hain ohikoa den estandarizatzeko identifikaziotik ihes eginez.

Guzti honengatik, generoari begiratzek, orain arte planifikazio eta hirigintzak kontutan eduki ez dituen pertsonak, eta haien erabilera-ohiturak eta beharrak aintzat hartzea suposatzen du, inolako bereizkeriarik gabe: hirigintza barneratzaile bat da beraz, aldarri feminista eta zaintzaile rol moduan emakumeek jasotako esperientzia oinarritzat dituen, baita duela gutxi arte, hirigintza plangintzen idazketa talde teknikotan egon ez diren emakume teknikarien ikuspegiak ere.

## 2.2. HIRI BARNERATZAILE EREDUA

Hirigintzan ikuspegi barneratzaile batekin erlazionaturik dauden gaiak lantzeko, aurretik hiri barneratzaile eredu definitu behar da, ondoren eredu horren arabera herria eta auzoa aztertu ahal izateko.

Orokorrean, ondorengoak izango dira aintzat hartu eta lantzeko ardatzak (eta hauek gain, leku edo gai zehatz batetako diagnostik ondorioztutako ardatzak ere)

- ✓ Lurralde eredu eta hiri eredu
- ✓ Kudeaketa
- ✓ Mugikortasuna: lurraldekoa, hiri artekoa eta tokikoa (auzoko eta auzo-arteak izango dutelarik garrantzi berezia )
- ✓ Ekipamenduak
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Espazio publikoak
- ✓ Segurtasuna
- ✓ Irisgarritasuna (ez soilik fisikoa, baizik eta soziala eta ekonomikoa ere bai)
- ✓ Partaidetza
- ✓ Jasangarritasuna

Ezin ahaztu hiri eta auzotan bizi diren bertako pertsonen esperientzia jasotzea daukan berebiziko garrantziaz. Zalantzarik gabe, lurraldeari ekarpen handiena egingo dion informazioa izango da hori. Hortaz, edozein udalerrri edo auzotako analisia egiterako orduan partaidetza ere ezinbestekoa da.; azpimarratu beharrekoa, partaidetzaren garrantziarena diagnosi fasean, alegia, hasieratik egin ez bada, baliorik gabekoa bailitzateke partaidetza aintzat hartzea prozesuaren azkeneko fasean.

### **3. HELBURU OROKORRAK**

Leioako HAPOaren planteamendu eta idazketa berrian genero ikuspegia jasotzeko proposamena hiru blokeetan bereizten da:

- 3.1. TOKIKO PERTSONAL TEKNIKOARI FORMAKUNTZA
- 3.2. ELKAR-LANEAN LANDUTAKO DIAGNOSIA
- 3.3. HIRIGINTZA DOKUMENTUAREN ERREDAKZIORAKO PROPOSAMENAK

#### **3.1. TOKIKO PERTSONAL TEKNIKOARI FORMAKUNTZA**

Haserako fase 'ez publiko' batetan, tokiko langileek genero ikuspegia duen hirigintza alorrean trebakuntza jasoko dute.

Ezinbestekotzat deritzogu enkarguak jasotzen dituen alorretan lan egingo duten pertsonak trebatu eta sentsibilizatzearnari, beraiek izango baitira, beraien eguneroko eginbeharrekoetan hiri, auzo eta bertan bizi diren pertsonen planteatutako afera eta beharrei aurre egin beharko dietenak. HAPO berriaren idazketan ikuspegi hau sartzeak ez luke ezertarako balioko baldin eta bertan lan egin eta kudeatzen duten pertsonen hirigintza barneratzailearen oinarriak ezagutzen ez badituzte eta ez badute gaiarekiko sentsibilizazio maila minimo bat.

Trebakuntza honek helburu bikoitza du: batetik, udaleko langile teknikoak trebatzearena, eta bestetik, Planaren idazketa berriramen lehiaketarako baldintza-agiri eta lizitazio berari begira, beharrezko baliabideekin hornitzearena.

#### **3.2. ELKAR-LANEAN LANDUTAKO DIAGNOSIA**

Tarteko fasea elkar-lanean landutako diagnosiaren garapena da. Aurreko fase batetan, komunikazio eta hirigintza analisi tekniko bat burutu dira, bai herritarren partaidetza zabala bermatzeko, baita partaidetza saiotarako material osotu bat sortzeko ezinbesteko oinarria ezarriaz.

Hiri eta auzoetako kolektibo eta erakundeen partaidetzaren bitartez elkar-lanean landutako behar eta egungo arazoaren diagnostika garatzen da. Beraiekin izandako saioetan, udaleko langile teknikoek ekarritako proposamen eta irizpideak ere jasotzen dira

Diagnosi fase honek beroketa ariketa gisa eta HAPOaren idazketa berrirako burutu beharko den diagnosian parte hartuko duten herritarrak aktibatu eta mobilizatzeko balioko du, beraien udalerriak planteatzen dizkien behar eta erronkak izendatzeko garaian, herritarrak ikuspegi barneratzaile batetatik ahalduntze aldera.

### 3.3. HIRIGINTZA DOKUMENTUAREN ERREDAKZIORAKO PROPOSAMENAK

Azken fasean, aurretik garatutako diagnostik abiaturik, bertatik lortutako ekarpen eta ondorioekin batera, jada baden hirigintza dokumentu berriaren idazketarako proposamenekin beste dokumentu bat garatuko da. Proposamen hauek genero ikuspegia daramate baitan, elkar lanean landutako diagnostik lortutakoak baitira, zeinak bere baitan daraman begirada barneratzailearen aintzakotzat hartzearena.

Kontutan izanda Plan berriaren idazketa prozesua oraindik hastear dagoela, berrikuste baterako proposamenek edukiko luketena baino orokorragoa da proposamenen Planaren dokumentuarena ikuspegia, nahiz eta saiatu proposamenok ahalik eta zehatzen izan daitezen.

## 4. LEIOAKO UDALERRIA

Egun, Leioako udalerriak 37.744 biztanle ditu; haietatik 16.252 (%51,20) emakumezko dira eta 15.492 (%48,80), gizonezko.

Hainbat auzo dituen udalerrria da, haietako batzuk, Pinueta eta Lamiako, esaterako, nortasun trinkoa dutenak. Nahiz eta auzo aniztasun handia egon, ezin esan lotua eta kohesio handirik dagoenik beraien artean, udalerrian zehar zabaldurik baitaude, eta kasu batzuetan, beraien artean isolaturik. Honi topografiaren afera gehitu behar zaio, toki batzuetan batere laua ez dena, isolamenduan eragina handitu egiten duelarik. Are, "Avanzada" errepideak alde banatara bitan zatikatzen du udalerrria, Auzo hauetako gehienek bizitegi-gune izateko joera daukate (bakoitza bere nortasunarekin, auzoaren arabera)

Ezin Leioari buruzko berri laburra egin, udalerrriaren ipar mendebaldean kokaturik dagoen Leioako kanpusa aipatu gabe. Zalantzarik gabe, udalerrriaren ezaugarri propioa da eta ez beste eskualdeko ezta probintziako udalerrirena, Hala ere, nahiz eta udalerrri barruan kokaturik egon, esan daiteke Leioak parte-hartze oso urria daukala kanpusarekin, harremanik ez dagoela ia, lotura txarra dagoela bien artean, biak lotzen dituen garraio publikoarena jorratu beharreko gaia dela, etb. Laburbilduz, gaur egun kanpusak bere kabuz funtzionatzen duen lurralde autonomo bat dela esan daiteke, kokaturik dagoen lurraldearekiko beharko lituzkeen hirigintza ardurarik ez daukana.

## 5. DAGOEN DOKUMENTAZIOAREN ANALISIA

Gaurdaino existitzen diren lanen laburpen bat edukitzeko asmoz, zeinak hirigintzaren ikusmira genero ikuspegitik planteatutako gaiekin erlazioa eduki dezaketen, egokienak aztertu dira.

### 5.1. LEIOAKO HIRI ANTOLAMENDURAKO PLAN OROKORRA (HAPO), indarrean

#### 5.1.1. SARRERA

Leioako hiri antolamendurako plan orokorra udalerriko zoruaren erabilerak arautu eta definitzen dituen udal araudia da, eta era berean, Leioako hiri hazkunde eredua zehazten du. HAPOa 1999 eta 2001 urteetan onetsi zuen Bizkaiko Foru Aldundiak, eta aurretik zegoen hirigintza planteamendurako tresna ordezkatu zuen, Arau Subsidiarioak, zeinak demokrazia garaiko lehen bi hamarkadetan udalerriko hirigintza garapena gobernatu zuten, beraien aurreikuspenak agortu zituzten arte.

Leioako Udalak bere web orrian dioen modura *“Gaur egungo HAPOren helburuak dira hirigunea finkatzea, hirigune hori udalerriko auzoekin lotzea, eta auzoak beren artean lotzea. Era berean, babes ofizialeko etxebizitzaren eskaintza zabala egiten da udalerriri osoan zehar, izaera ekonomikoko jarduerak garatzeko lurzorua gordetzen dira, hezkuntza, kultura, kirol, asistentzia eta beste hainbat arlotako ekipamendu publiko eta pribatuaren sare zabalak aurreikusi dira azpiegitura eta zerbitzu hobekiak eskaini ahal izateko, bai eta eremu libre eta gune berde gehiago ere”*

Indarrean dagoen hirigintza araudiaren arabera, udalerriko zoruak lau mailatan sailkatzen du: lurzoru urbanizazina, lurzoru urbanizagarri programatua, lurzoru urbanizagarri programatu gabea eta hiri lurzorua.

Sistema orokorrean dagokienez (lurraldearen egitura orokor eta organikoaren oinarriko elementuak) HAPOak honako sailkapena egiten du, udalerrirako hartutako hirigintza garapen ereduen arabera:

- ✓ Berdegune eta gune irekietarako Sistema Orokorra
- ✓ Komunikaziotarako Sistema Orokorra
- ✓ Ekipamenduetarako Sistema Orokorra
- ✓ Azpiegituretarako Sistema Orokorra

#### 5.1.2. ALDERDI POLITIKOEK EGINDAKO IRADOKIZUNAK

HAPOaren idazketaren Aurreko analisietan jada aipatzen zen <b>garraio publikoa</b> , hirigintzarako giltzarriko arazoetako bat zela. Hala nola, <b>udalerriko kanpo eta barne komunikazioa</b> hobetzearen beharra
--

Hornikuntzari dagokionez, Leioan <b>berde gune gehiago</b> sortzeko beharra aipatu zen.
---

Trafikoari dagokionez: <b>alternatiba perimetralak bilatu</b> eta <b>auzoetarako sarbideak hobetu</b> , bereziki, Lamiako, LaTxopera eta Txorierrirako.
---

Lurzoru industriala eta bertako jarduerarekiko kezka ere aipatzen da, lurzoru hauek sustatu eta <b>lurzoru industrial urbanizagarriak</b> sortzearen alde eginez.
---



5.1.3. BIZILAGUN ETA ELKARTEEK EGINDAKO IRADOKIZUNAK

<b>Metroa erdiguneraino eta EHUraino</b> iritsi dadila
<b>Berdegune</b> eta aisialdirako gune <b>gehiago</b>
Bizkaiko Foru Aldundiak <b>trafiko arazoari emandako konponbideari gaitzespena</b> , Getxorako delako onuragarria eta ez Leioarako
<b>Auzo guztietako espaloien asfaltatze</b> eta konponketa
Ipar eta erdigunearekin parekaturik, <b>hegoaldeko zonaldeen bazterkeriaren salaketa</b>

Laburbilduz, alderdi politikoek iragarritako hiru puntu aipatzen dira berriz:

- A/Auzoetara sarbidea hobetu
- B/Garraio publikoa dela arazo nagusietariko bat
- C/ Berdegune gehiago

Eta mahaigaineratzen dute:

- D/ Trafikoari konponbidea ematea

5.1.4. HAZKUNDEARI DAGOKIONEZ, HARTUTAKO ALTERNATIBA (korporazioak hartutako irizpideak)

Idazketa Taldeak aurkeztutako proposamenetatik, 3garrena aukeratu zen: **LAGek** (Lurralde Antolamendurako Gidalerroak)**proposatutakoa baino hazkunde handiagoa** esleitzen duena.

- Hasierako etxebizitza kopuru osoa: 2919.
- 3.garren alternatibak 289 gehitzen dizkio.

5.1.5. PROPOSAMENAREN DESKRIBAPENAA/ Proposamenean jasotako lurralde eredia**Bizitegi dimentsionamendua****1. Biztanleria**

XX mendean zehar, 1900 urtean 1846 biztanleetatik, , 1991ean 25.490 biztanleetako udalerrri izatera pasatzen da Leioa. Hazkundera ez da homogeneoki gertatzen, garapen ekonomiko eta beste faktore batzuekin loturik doa.

Biztanleriari dagokionez HAPOak honakoa dio:

*“Ondorio orokor bezala esan dezakegu udalerrri honetako biztanleriak hazkunderako joera arin bat erakusten duela, hazkunde hori eragiten duten kausetan, aurreikusit bezala, aldaketak sumatzen hasi badira ere (1999). Hala, duela urte gutxi arte, hazkunde begetatiboaren tasa zen garapen hau azaltzen*

*zuen faktore nagusia, ordea, 1992an antzeman daiteke jaiotze tasak txikitzen doazelarik, etorkizunean saldo migratzaile positiboek izan beharko dutela hazkundearen faktore nagusia, baldin eta egungo joera mantentzen bada. Edonola ere, jaiotze tasek erakutsitako joera erregresiboa ikusita, argi dago Leioako biztanleriaren hazkundera, izango diren saldo migratzaile positiboetan oinarrituko dela nagusiki.”*

HAPOak 2008ko laugarren laurtekorako 30.601 biztanleetako aurreikuspena egiten du (lortutakoa, jada) eta 36.686 biztanleetako populazio saturazioari aipamena egiten dio.

### **Lurzoru emankorraren dimentsionamendua**

Lurzoru emankorra horrela banatzen du:

- Berez lurzoru industrialala dena
- Lurzoru komertziala
- Lurzoru tertziario mistoa

Kontsolidazio eta hobekuntza irizpideak jarraiki, Leioako lurralde industrial historikoetatik bideratzen da: Lamiako eta Udondoko ardatza.

### **B/ Eremu irekiko sistemak**

Sistema Orokorraren barnean dauden parke publikoetarako, biztanleko 5m<sup>2</sup> kalkulaten dira. HAPOak berdeguneetarako 61.500 m<sup>2</sup>ko gabezia aurreikusten du, batik bat, auzoetako parkeetan. Era berean, halako beharrei aurre egin ahal izateko udalerrriak daukan ahalera aipatzen du. Pinosolo proposatzen da kirol erabilera emateko auzoko parke modura; Artatzako parkea, neurri eta kalitatearengatik; Lejoaundi parkea proposatzen da (erdigune historikoaren multzoaren barruan); Lertutxeko parke botaniko (Lertutxekourtegia-Lertutzako urtegia)

Gune Irekien Tokiko Sistemai dagokienez: Planak handiagotze nabari bat aurreikusten du.

### **D/ Ekipamendu sistema**

Planak, tokiko ekipamendu sistemak aski orekaturik dagoen egitura bati eta hiri sarean barna bizitegi-guneen beharretara zuzenki egokitzen den banaketa bati erantzuna eman diola ulertzen du

Ekipamendu kulturalak: 7000 m<sup>2</sup> inguruko gabezia kalkulaten da (egun dauden ekipamendu kulturalak hartu beharko luketen espazioaren %42<sup>a</sup> baino ez dute betetzen). Txostenak, erdigune historikoak kokatuko litzatekeen teatro-auditorio bat gehitzeko nahia jasotzen du. Leioako gune kulturalak dinamizatzearen garrantziari ere egiten dio aipamena, unibertsitatean, halako ekimenetarako prestatuturik dauden guneak erabiliz.

**Laburbilduz:**

Tokiko ekipamenduen banaketa lurraldean orekatua izan dadila, eta bizitoki- guneen beharretara egokitutakoa. Udal edo Udal-gain mailako ekipamendu singularren gabezia, zeina tokiko dotazioekin alderaturik, udal sare kultural oso egoki batetan puntu beltz bat den.

**5.2. GENERO IKUSPEGITIK EGINDAKO HIRIGINTZA DIAGNOSIA****5.2.1. SEGURTASUNAREN INGURUKO HIRIGINTZA DIAGNOSIA ETA LEIOAKO GENERO IKUSPEGITIK DUEN IRUDIKAPEN SINBOLIKOA**

2009an Murgibe S.L.- Udaleko Zerbitzu Sozial arlorako eginiko txostena. Segurtasun eta irudikapen sinbolikoan oinarrituta dago.

Segurtasunetik abiatuta, emakumeek segurtasun falta antzematen duten udalerriko tokiak izendatzen ditu eta helburuak dira, batetik, hauen neutralizaziorako neurriak ezartzea du (nahiz eta ez oso neurri zehatzak izan). Bestetik, toki horiek aztertu ondoren, segurtasun falta eragiten duten elementuak izendatu, ekidin ahal izateko.

Irudikapen sinbolikotik abiatuta, kaleko elementuen bitartez (izendegiak) emakume eta gizonezkoek egindako ekarpenen aitortza soziala aztertzen du. Puntu honetan esan, sinbolikoarena baino ikuspegi zabalago batetik, azpimarratu soilik kaleetako izendegiak hartzen dituztela kontutan.

Genero ikuspegia duen hirigintzaren kontzeptuari buruzko sarrera txiki bat egiten du, ugalketa lana, zereginen katea edota joan-etorrien katea, hirigintza barneratzailea, lanaren banaketa soziala, zonifikazioaren erlazioa hirigintzan, mugimendu pendularra eta "poligonal", etab.en moduko oinarriko kontzeptuak azalduz.

Lanketa hau Leioako 17 emakumeren partaidetzarekin egin dute, segurtasuneko galdetegiaren bitartez beste emakume batzuen ekarpenekin, Udaleko Bulego Teknikoaren laguntzarekin eta Tokiko Poliziak emandako informazioarekin.

Sarreran aipatzen dute *"lehendabiziko hurbilketa bat dela, udalerraren hiriarren egunerokoaren lehendabiziko aitortza bat"* Beste desegokitasun bat da ez duela udalerr osoa aintzat hartzen, hau da: aztertu eta handik zehar ibili ahal izan duten tokietara mugaturik dago. Eta azkenik, azpimarratzen dute *" ez dela lekuen zerrenda zehatz eta sakon bat, baizik eta segurtasunaren ikuspuntutik, aurki ditzakegun arazoaren hainbaten zerrenda bat"* Aipatu ere segurtasuna *"eraso fiskoaren aurrean arrisku eza"* bezala definitzen duela (gure ustez, definizio hau berrikusi egin beharko litzateke, etorkizunean Leioako puntu beltzak edo sentsibilitate maila handiagokoak ikuspegi barneratzaile batetik landu ahal izateko) Lau indikatzaile erabiltzen dituzte landutako tokien segurtasuna aztertzeko:

- ✓ Ikusgarritasuna: ikusi eta ikus zaitzatela
- ✓ Afluentzia: entzun eta entzun zaitzatela
- ✓ Tokiaren kalitatea (mantentzea eta garbiketa ere jasotzen ditu)
- ✓ Laguntza lortu ahal izatea (zeharkako zaintza eta zaintza zuzena)

Aztertutako zonaldeak lau dira

- ✓ **A Zonaldea:** erdiguneko zonaldea, "Avanzada" gainetik (Iparraldea)
- ✓ **B Zonaldea:** erdiguneko zonaldea "Avanzada" azpitik (hegoaldea)
- ✓ **C Zonaldea:** B Zonaldeetik behera itsasoraino dagoen tartea: Ondiz, Txorierri, Pinueta, Txopoeta, Lamiako. Azkenean Pinueta, Txopoeta eta Lamiako kanpo geratu ziren
- ✓ **D Zonaldea:** A Zonaldeetik gora geratzen den tartea: Artaza, Artazagane, Sarriena, Peruri. Baina azkenean, hainbat arrazoirengatik, Artaza, San Bartolome eta Artazagane salbu, kanpoan geratu dira beste guztiak,.

Aztertutako toki bakoitza izendatu eta deskribatzen hasi aurretik, toki bakoitzeko arazo orokorraren deskribapena egiten dute

#### A ZONALDEA: "AVANZADA"-REN IPARREKO ERDIGUNEA

Leioaren hazkunde garai ezberdinetan sorturiko hainbat bizitoki multzokatze jasotzen ditu: Monte Ikea, Plaza Errekalde, Grupo San Juan, Grupo Iturribide, Mendibile... Topografian aldapa gogorak dituen zonaldea izaki, hiriaren itxuran islatzen diren arazoak azaltzen dira (kale eta eraikuntzen diseinu eta antolamenduan, eta beraien arteko loturetan), esaterako, Ikea Mendia eta San Juanen gertatzen den modura, non eraikuntzak eta etxebizitzak zoruaren nibelari jarraituz kokatu dituzten, terraza erako kaleak eratu direlarik, batzuetan, gainera, irteerarik ez dutenak. Aipatzen duen beste arazoetako bat, jada bazegoenaren eta berria egin dutenaren arteko loturetatik eratorritakoa da, Bidekurtzio Plazan gertatu dena, kasu. (aldapen, neurri handiko begetazio eta besteren arteko nahasketa; edota aurretik bazeuden baldintzen existentzia espazioetan (definitutako indikatzaileen baldintzak betetzen ez dituztenean)

B ZONALDEA: "AVANZADA"-REN HEGOALDEKO ERDIGUNEA

Zonalde heterogeneoa, Aren modura, Leioaren hazkunde garai ezberdinetan sorturiko hainbat bizitoki multzokatze jasotzen dituena: Sakoneta, Kandela Zubieta, Udondoko Boulevard-a, ... Zerbitzugune gehienak baita hiri-ekipamendu gune asko ere, zonalde honetan daude kokaturik, (Correo, osasun gunea, kiroldegia, etb.)

Balorazio orokorrean argiztatzea eta begetazioa aipatzen dira aztergai modura. Eraikuntza artean dauden segurtasun baldintza minimoak betetzen ez dituzten oinezkoen bideak ere aipatzen ditu. A Zonaldean gertatzen zen modura, hiri formatik eratorritako puntu batzuk ere aipatzen ditu, tunel moduko pasabideak, galeriak, ikusgarritasun zaileko guneetan atariak, etb. agertzen direlarik. Bukatzeko eraso saiakerak Udondoko Boulevard-ean pairatu dituztela ezagutzera ematen dute emakume horiek.

C ZONALDEA: ONDIZ ETA TXORIERRI

Izaera eta nortasun oso ezberdineko bi nukleo dira hauek. Ondizekoa, landa gunea da, alboan ortu eta lorategia daukaten etxe/baserriz osatutakoa Alzaga Ikastola ere bertan kokaturik dago.

Txorierrikoa, berriz, Behe solairu + 3 maila duten etxebizitzetako eraikinez osatutako bizilekua da, kokaleku aldapatsu batetan, non, sestra lerroari jarraikiz kokatu dituzten eraikinok. Ez dago apenas merkatal gunerik eta behe solairu gehienak garajeak edo etxebizitzak dira. Badago berrikiago eraikitako BOE bloke bat, zeinetan bere bertako solairuan pertsona helduentzako egoitza bat dagoen eta aurreko partean plaza txiki bat egiten duen (Txorierrin dagoen espazio publiko bakarra)

Arazo orokor gisa, bi auzo hauek erdigunearekin lotzen dituzten oinezkoen bideak aipatzen ditu, egungo egoeraren segurtasun gabezi aila handia delako. Honi lotuta, irisgarritasun arazoak lantzearen beharra ere ekartzen du mahaigainera, arrapalak edota egokitutako eskailerak ipiniz.

Pinueta auzoa osorik ezin izan dute aztertu, baino bai bertan dagoen Gaztelubide kaleko gurutzabidea (Gaztelueta eta Artaza Ikastetxeetara eta Betiko Ikastolara igotzeko kalea) suhiltzaileen parean "Avanzada"-rekin duen lotura gunearekin.

D ZONALDEA: ARTAZAGANE ETA SAN BARTOLOME

Elkar urrundurik dauden bizitoki guneak dira, isolamendu sentsazioa handitzen duten berdeguneek bereiztuak eta erdigunetik aldentuak. Joan etorriak ibilgailuarekin egiten dira nagusiki.

Arazo orokor gisa, auzo arteko bideak aipatzen dira: bakartiak eta sarritan, lanketan definitutako indikatzaileen baldintza minimoak ere betetzen ez dituztelarik. Kaleko giro eza ere aipatzen da, soilik bizileku izaera duten auzoak direlako, bestelako erabilerarik gabe. Bizitoki sareak garraio publikora egokitzeko mugikortasunaren azterketa egitearen beharra azpimarratzen du. Baita "Avanzada" zeharkatzeko iragan beharreko lurpeko pasabideen arazoena.

## 2009ko AZTERKETAN IZENDATUTAKO ETA PUNTUEN ZERRENDA

A Zonaldea		
Puntu Zbakia	Puntuaren Erref.	Kokapena
1	A1	Iturribide 17 Zbakiko Multzoa
2	A2	Bidekurtzio alboko eskailerak
3	A3	Sansoenea auzora doan bidea
4	A4	Mendibile 3 Zbakia. Behargintzaren Zonaldea
5	A5	San Juan multzoko eskailerak
6	A6	Ikea Mendia 12, 14 eta 16
7	A7	Elexaldeko Errota
8	A8	Errekalde plaza atzetik Ikea mendira doan bidea
9	A9	Errekalde plaza atzeko eskailerak
10	A10	Hilerria inguratzen duen bidea

B Zonaldea		
11	B1	Sakoneta kalerantz doazen Sabino Arana etorbideko eskailerak
12	B2	Osasun etxera doan bidea
13	B3	Sakoneta Sakonetako polikiroldegiko eskailerak
14	B4	Txosnak Gunea-Aldapa
15	B5	Bizkaiko etxebizitzak
16	B6	Sabino Arana eta Iparragirre arteko bidegurutzeara
17	B7	Sabino Arana 84
18	B8	Kandela Zubieta
19	B9	Sabino Aranara doan Luis Libano pasealekua (Ritz kafetegia)
20	B10	Udondoko boulevarda
21	B11	L. Agirretik Astrabuduarako norabidea

C Zonaldea		
22	C1	Independentzia kalea, 50 eta 66 Zbakien artean
23	C2	Ondizeko bidegurutzeara
24	C3	Ondizeko Parkea
25	C4	Ondiz eta Txorierrri auzoaren arteko kalea
26	C5	Lamiakora jeisten diren eskailerak
27	C6	Urtegiara doan bidea
28	C7	Gaztelubideko bidegurutzeara, Pinuetan

C Zonaldea		
29	D1	Artazagane Plaza
30	D2	Ermitazpi Zubiako pasabidea
31	D3	Joaquin Achucarro kalea
32	D4	Artaza kaleko atariak
33	D5	Landabarri pasealekuan kokatutako lurpeko pasabidea
34	D6	Artaza eta Basañese kaleen arteko eskailerak
35	D7	Landabarri 5-17ko lurpeko pasabidea
36	D8	Artazaganeko urbanizaziora doan errepidea
37	D9	Artazagane auzora doan errepidea
38	D10	Negurugane kaleko atari baterako irisgarritasuna

**LABURPENA**

Zalantzarik gabe, Leioa osoko auzoak jaso ahal izateko zabalago landu beharreko azterketa da. Gainera, auzo bakoitzean bizi den pertsonen parte hartzea bermatu beharko litzateke (gutxienez). Kontzeptualki, eta ikuspegi zabalago batetatik, segurtasun/segurtasun-ezaren definizioa ere zabalagoa beharko luke. Baita segurtasun objektibo eta subjektiboarenak ere, eta gaur egungo dibertsitatea herritartasunari gehitu.

Emaitzen aurkezpenari dagokionez, batetik, komenigarria litzateke tokietako arazoak gai generikoen arabera sailkatzea, toki ezberdinetan errepikatzen diren arazoak baitira: adibidez, espazio publikoa / begetazioa / mantentzea / konektibitatea, etb. Bestetik, baliagarria izango litzateke hobekuntzen edo konponbideen proposamen zehatzagoak edukitzea (gauzatze eta garapenari dagokionez), ahal den neurrian, puntu ezberdinetan parte hartzeko helburuarekin.

Ikuspegi orokor batetatik, Leioako hiri ereduari buruzko hausnarketa zabalago bat ere egin liteke, zeinak, zalantzarik gabe, ondorio zuzenak edukiko dituen izendaturiko gaietako batetan. Udal mailan egingo litzatekeen hausnarketa hau, puntu beltz edo sensibleetatik ikusita, zalantzarik gabe, askoz hobe egokitzen da Leioak aztertu beharko duen HAPOaren idazketa berrirako aurre azterketetara

Irudikapen sinbolikoari dagokionez, hirigintzaren ikuspegi barneratzaile batetatik begiratuta, kaleen izendegietatik haratago zabaldu beharko litzateke, egitura patriarkalaren isla gizartean eta hirigintza gaietan dituen ondorioa sinbolikoak sakonkiago aztertu ahal izateko.

**5.2.2. GENERO IKUSPEGITIK EGINDAKO TOKIKO SEGURTASUN IKUSKARITZA (2015)**

2015an EHUko kriminologiako bi ikaslek egindako azterketa batean datza. Azpimarratzeko lehen puntua: azterketaren oinarritzat 2009an Mugibek burututako genero ikuspegitik landutako hirigintza diagnosi lana hartu dute. Kriminologiaren ikuspegia jasotzen dute *“dagokigun materialarako, honek dituen baliabideen”* aldeko apustua eginez. Hasierako azterketarekin alderaturik “Eguneko” puntuen egoera eguneratzen du (2015, hobekuntzarik egin den edo ez aipatuz. Laburbilduz, honokoa jasotzen du azterketak:

- ✓ Emakumeek segurtasunezkoak deritzoten guneak ebaluatzen ditu, 2009ko lanketan oinarriturik.
- ✓ Gune horiek segurtasun gabeko egiten dituzten iturburuak aztertzen ditu
- ✓ Gune horretan burututako eraldaketak parekatzen ditu

- ✓ Eraldaketa horien arabera, segurtasun gabeziarekin jarraitzen duten edo ez ondorioztatzen du
- ✓ Gune horietan segurtasun ezaren sentsazioa murriztuko duten hobekuntzak proposatzen ditu.

Ikuspegi kriminologiako batetik begiratuta, azterlanak gertaera kriminal kopurua murrizteko duen baliabideetako bat erabiltzen du: "tokikotasun ikuspuntuarena, hau da, kaleko ingurugiroa aztertzearena, gune krimipeto bat izateko edo bilakatzeko aukerak aztertuz, gune horiek, krimifugoak bilakatzeko hobekuntzak proposatzeko helburuarekin"

2009ko azterketak erabilitako indikatzaile berdinak baliatzen ditu:

- 1/ Ikusgarritasuna: ikusi eta ikus zaitzatela
- 2/ Afluentzia: toki horretatik igarotzen den pertsona kopuruaren dentsitatea (eta horren arabera, entzuna izateko munta ezagutzea)
- 3/ Tokiaren kalitatea
- 4/ Kontrol eta laguntza lortzeko aukera

Marko kontzeptualean, kriminologiaren garrantziaz eta herri guneak diseinatzeko garaian duen erlazioaz aritzen da, kriminologia sexualaren fenomenologiaz, biktimologiaz, erasotzaile sexualaren perfil kriminalaz eta biktimizazio eta delinkuentzia prozesutan faktore sozial eta pertsonaletan sakontzeko aurrerago.

Erabilitako metodologia honokoa da: 2009ko azterlanean jasotako guneak argazki bidez dokumentatu, bai egunez eta baita gauez ere, aurreko azterlanean jasotako argazkiekin parekatu eta izandako aldaketak jasotzeko, emaitzak aztertu eta hobekuntza berriak proposatzeko.

Aurreko azterlanean proposatutako 4 gunez gain (A, B, C eta D guneak), bi gune berri gehitzen zaizkio:

- ✓ E Gunea: Lamiako
- ✓ F Gunea: Pinueta

Aldaketa aipagarria da, izan era, bi gune berri hauetan bizi baita biztanleriaren kopuru handiena.

Gainera, "**Gune Bereziak**" modura izendatutako beste gune bat ere jasotzen du. Gune hauek ez dira ibilbide zehatz batetara mugatzen, baizik eta kokaturik dauden lekuari egiten zaio erreferentzia. Bere baldintza eta arazoengatik jaso beharreko lekuak direla eta daukaten garrantzia aitortu behar zaiela erabaki du egileak. Gune hauetako fitxak honokoa definitzen du: kokapena/deskribapena; morfologia; aurkitutako arazoa; ikuspegi integratzailea; hobekuntzarako proposamenak.

Azkenik "**Iradokizun**" izenburupean beste kokagune batzuk jasotzen ditu; gune horretan bizi diren emakumeei ezinegona eragiten dieten espazioak eta egileek baieztatu ahal izan dituztenak; are,



aurretik landutako aldagaietan gabeziak bazeudela ohartzeko balio izan die. Ez dira oso arazo larriak, baina bertan ekiten ez bada, etorkizunean segurtasun eza sorrarazi dezakete.

Datu bilketari dagokionez, 2009ko azterlanari, Leioako Tokiko Udaltzainak jasotako salaketak gehitzen zaizkio; gune horietatik igarotzen diren emakumeei, segurtasun ezaren pertzepzioa jasotzeko, banatu zaien inkesta labur orientagarri bat; ikertzaileek jasotako eta betetako galdetegi bat; eta Leioako biztanleei egindako elkarrizketa informal batzuk.

Marko teorikoan, azterlanak bertan erabilitako kontzeptuak definitzen ditu. Aipatzekoa da 2009ko azterketak jasotako kontzeptu kopurua handitzen duela, segurtasun objektibo eta subjektibo, gizarte kontrol formala eta informala eta kriminologiarekin erlazionatutako beste kontzeptu zehatzagoak ere jasoaz.

## 2015 KO AZTERKETAN IZENDATUTAKO GUNE ETA PUNTUEN ZERRENDA

A Zonaldea				
<i>Puntu Zbakia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	<b>2015eko egoera</b>
1	A1	A1	Iturribide 17 Zbakiko Multzoa	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
2	A2	A1	Bidekurtzio Plaza	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
3	A3	A2	Sansoenea auzora doan bidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
4	A4	---	Mendibile 3 Zbakia. Behargintzaren Zonaldea	
5	A5	A3	San Juan multzoko eskailerak	Hobekuntza batzuk burutu dira baino azterketak gehiago proposatzen ditu
6	A6	A4	Ikea Mendia 12, 14 eta 16	Argiztapen gehiago jarri dute, baino azterketak hobekuntza gehiago proposatzen ditu
7	A7	A6	Elexaldeko Errota	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
8	A8	A5	Errekalde plaza atzetik Ikea mendira doan bidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
9	A9	A7	Errekalde plaza atzeko eskailerak	Landaretza kendu dute eta argiztapena hobetu, baia azterketak hobekuntzak proposatzen ditu
10	A10	A8	Hilerria inguratzen duen bidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu

B Zonaldea				
<i>Puntu Zbkia</i>	<i>Erref. Puntuua 2009</i>	<i>Erref. Puntuua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	<b>2015eko egoera</b>
11	B1	<b>B1</b>	Sakoneta kalera doazen Sabino Arana etorbideko eskailerak	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
12	B2	<b>B3</b>	Osasun gunera doan bidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
13	B3	<b>B2</b>	Sakonetako Polikiroldegiko eskailerak	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
14	B4	<b>B4</b>	Aldapabarrena – Altzaga Ikastola	Zonaldean eraiki da, baina azterlanak hobekuntza gehiago proposatzen ditu
15	B5	<b>B5</b>	Etxebizitzak Bizkaian	Espaloia hobeagotu da eskubandak ipiniz, baina azterlanak hobekuntza gehiago proposatzen ditu.
16	B6	<b>B6</b>	Sabino Arana Iparragirrerekin	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
17	B7	<b>B7</b>	Sabino Arana 84	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
18	B8	<b>B8</b>	Kandela Zubieta	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
19	B9	<b>B9</b>	Sabino Arana kalerantz doan Luís Líbano a Pasealekua (Ritz kafetegia)	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
20	B10	<b>B10</b>	Udondo Boulevard-a	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
21	B11	<b>B11</b>	Astrabudua norabidean L. Agirre Plaza	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu

C Zonaldea				
<i>Puntu Zbkia</i>	<i>Erref. Puntuua 2009</i>	<i>Erref. Puntuua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	<b>2015eko egoera</b>
22	C1	<b>C1</b>	Independentzia kalea 50 eta 66zbaki artean	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
23	C2	<b>C2</b>	Ondizeko bidegurutzea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
24	C3	<b>C3</b>	Ondizeko parkea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
25	C4	<b>C4</b>	Txorierriko auzoko eta Ondiz arteko kalea	Arekak jarri dira, 2 semaforo ipini, eta informazio eta trafiko seinale kopurua handitu. Azterketak hobekuntza gehiago proposatzen ditu.
26	C5	<b>C5</b>	Lamiakora jaisten diren eskailerak	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
27	C6	<b>C6</b>	Urtegirako bidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
28	C7	<b>C7</b>	Gaztelubideko gurutzebidea Pinuetan	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu

D Zonaldea				
<i>Puntu Zbakia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	<b>2015eko egoera</b>
29	D1		Artazagane Plaza	
30	D2	<b>D3</b>	Ermitezpi Zubiak pasabidea	Hobekuntzak burutu dira baina lanak proposamenak txertatzen ditu.
31	D3	---	Joaquín Achucharro Kalea	
32	D4		Artaza kaleko atariak	
33	D5	<b>D4</b>	Landabarri 49-57 pasealekuan kokatutako lurpeko pasabidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu.
34	D6	<b>D6</b>	Artaza eta Basañese kaleen arteko eskailerak	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
35	D7	<b>D5</b>	Landabarri5- 17 pasealekuko lurpeko pasabidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
36	D8	<b>D2</b>	Artazagane urbanizaziora doan errepidea	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
37	D9	<b>D1</b>	Artazagane auzora doan errepidea	Begetazioaren egoera hobetu da eta abiadura murrizteko gailua ipini, baina azterketak hobekuntza gehiago jasotzen ditu
38	D10	---	Negurigane kaleko atari baterako sarbidea	

E Zonaldea: LAMIAKO				
<i>Puntu Zbakia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	<b>2015eko egoera</b>
		<b>E1</b>	Langileria 2	Ez da hobekuntzarik hautematen Proposamenak jasotzen ditu
		<b>E2</b>	Langileria 36	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>E3</b>	Langileria 92	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>E4</b>	Juan Ajuriagerra plazako gainetik doan pasabidea	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>E5</b>	Gabriel Aresti 1	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>E6</b>	Langileria 178	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu

F ZONALDEA: PINUETA				
<i>Puntu Zbkia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	2015eko egoera
		<b>F1</b>	Larramendi eta Maiatzaren Bata Kaleen arteko pasabidea	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>F2</b>	Cervantes plazara igoera	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>F3</b>	Nafarroa kaleko atzekaldea	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu
		<b>F4</b>	Nafarroa Kaleko lurpeko zatia	Ez dago konparaketarako daturik Proposamenak jasotzen ditu

ZONALDE BEREZIAK				
<i>Puntu Zbkia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	2015eko egoera
		<b>ZE1</b>	Camino que une la discoteca Sonora diskoteka Leioarekin lotzen duen bidea	
		<b>ZE2</b>	Cervantes Plaza	
		<b>ZE3</b>	Iparragirre Etorbideko lurpeko tunela	
		<b>Z4</b>	Iberdrolako subestaziorako bidea	

IRADOKIZUNAK				
<i>Puntu Zbkia</i>	<i>Erref. Puntua 2009</i>	<i>Erref. Puntua 2015</i>	<i>Kokapena</i>	2015eko egoera
		<b>S1</b>	Mendibile 3, Behargintzako zonaldea	
		<b>S2</b>	Txorierri 46ko kalea	
		<b>S3</b>	Artatzaganak Elexalde etorbidearekin duen pasealekua	
		<b>S4</b>	Laubide 13 eta Basañese arteko eskailerak	
		<b>S5</b>	Pinueta 12 kalezuloa	

Azkenik,aztertutako gune guztiak kokatu ondoren, azterlan honek ekiteko lehentasunezko guneen proposamena egiten du. Gune horiek beheranzko ordenan zerrendatzen dira, hau da larritasun maila txikienetik hasita maila gorenekora arte.

LEHENTASUNA	GUNE ZBAKIA	KOKAPENA
1	<b>B11</b>	Agirre Lehendakaria Plaza, Astrabudua norabidean
2	<b>ZE2</b>	Cervantes Plaza
3	<b>D4</b>	Landabarri Pasealekuko 49-57n kokatutako lurpeko pasabidea
4	<b>E6</b>	Langileria 178 Zbakia
5	<b>F2</b>	Cervantes Plazara doa igobidea
6	<b>C4</b>	Txorierri eta Ondiz auzoen arteko kalea
7	<b>D6</b>	Artazaeta Basañese kaleen arteko eskailerak
8	<b>D1 y D2</b>	Auzora doazen errepideak
9	<b>D5</b>	Landaberri Pasealekuko 5 eta 17 zenbakien arteko lurpeko pasabidea
10	<b>C5</b>	Lamiakora jaisten den eskailera
11	<b>C1</b>	50 eta 66 Independentzia Kalea zenbakien artean
12	<b>A4</b>	Ikea Mendia, 12-14-16 zenbakiak
13	<b>ZE3</b>	Iparragirre Etorbideko lurrazpiko tunela
14	<b>B9</b>	Luis Libano Arana Pasabidea (Ritz kafetegia)
15	<b>ZE4</b>	Iberdrolako subestaziora (ZE4) doan bidea

#### LABURPENA

2009ko bere aurrekaria baino azterlan eguneratuago eta zabalagoa da, beraz, edozein analisis 2009n egindakoaren aurretik eduki beharko lukete aintzat. Hobekuntzarako proposamenak argiztatzean eta begetazio alorretan arreta jartzen badute ere, bere aurrekariak egindakoa baino lan gehiago egiten du irtenbideak areago zehazten. Edonola ere, aurreko txostenaren inguruan lehendik aipatu bezala, dagokion testuinguruan kokatzea beharko luke, hiri eredua barruan, eskala handiago batetan, eta agian, guneak eta ekintzen sailkapen bat egin ere.

## 5.3LEIOAKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLAN ESTRATEGIKOA, 2013

2013an burututako lan bat da. Leioako biztanleria, hazten ari den biztanleri bezala aurkezten du, besteak beste, HAPOnen berrikusketak proiektatzen duen etxebizitzaren hazkuntzarako politikari esker (1000 etxebizitza) eta biztanleriaren gaztetasunari esker. Garapen demografiko hazgarri honen aurrean (2013), udalerriak tokiko merkataritza eta hirugarren sektorea ezagutzen ez duten bizilagun berriak erakarriko dituela aipatzen du. Era berean, bertako bizilagunen merkatal eskaintzaren ezagutza eza azpimarratzen du

Aztertzen dira:

<b>A/Eskariaren analisia</b>
Zonaldeka, udalerraren erdigunean ematen da eskaria tertziarioen erdia baino gehiago.
Bi herenen ingurukoak dira Leioatarrek udalerrian bertan burutako gastuak tertziarioetan, baino azpimarratu beharrekoa da hedapen handiko saltokien presentzia (EROSKI eta ARTEA), zeinak udalerriko gastua bertan ainguratzeko gaitasuna daukaten.
Gastua honela banatzen da: %26 herriko erdigunean, %22 EROSKIn eta %18 <sup>a</sup> ARTEA Merkatalgunean.
Getxo eta Erandio alboko udalerriek Leioatarren gastuaren %5,3 eta %5,8 jasotzen dute, hurrenez-hurren; Interneko banaketa kanalaren kopuru berdintsuan, zeinak %5,8 eramaten duen.
Gastu tertziarioaren %11 Bilborentzat doa, bereziki altuagoa Pinuetako biztanleen kasuan (%21)
Leioako kanpusean dabilen irakasle eta ikasle taldea aipatzen du gizatalde potentzial modura, Leioako Kanpusa udalerrri bertan kokaturik badago ere, ez dena kontutan eduki herritasun eta ikuspegi sozioekonomiko batetatik abiatuta.

\* Kontutan edukitzekoa da udalerriko eskari tertziarioa bere osotasunean aztertu dela eta ez dela landu hurbileko merkataritza bere esklusibotasunean.

<b>B/ Eskaintzaren diagnosia</b>
Azterlanak dio Leioako hirugarren sektoreak bere zenbakiak mantendu ahal izan dituela, testuinguru ekonomikoa aldeko ez izan arren (2013)
Ordea, merkatalgo txikiak denda kopurua murriztu du.

Laginean jasotako denda gehienak erdigunean daude kokaturik (%62). Beste zonaldeetan aurkituko ditugu beste %8-%10-a

Bukatzeko ondoriozta daiteke udalerriko alor tertziarioa, ñabardura itxaropentsu batzuk azaldu arren, egoera zail bati aurre egiteko tenorean dagoela.

### C/ Mugikortasuna eta hiri guneak

Kontsumitzaileek hiriko guneei egiten dioten balioespena

Puntuazio txarrena aparkatzeko arazoek jasotzen dute

Balorazio onenak oinezkoentzat egindako bideek, herri altzariek eta kaleetako garbitasunak jasotzen dituzte

Mugikortasunari dagokionez:

Ibilgailuarekiko mendekotasun handia eta erabilera altua (%84) erosketak egiterakoan.

Mugimendu pendular tasa nabaria: etxe-lantoki (%79,6), "logela hiria"ren ispilu

Labur esanda, azpimarratzen du:

- ✓ 1/ *Sakabanaturik dagoen egituraketa espazialak eta udalerraren orografia bihurrituak, Lamiakoren modura, izaera eta nortasun propioa duten, edota Basaez modura, bizitoki izaera duten, edota Leioako egunerokotasunetik espazialki eta funtzionalki aldentuta dauden unibertsitate kanpusa eta etorkizun batetan parke zientifikoa izango den gunez eta auzoz osatutako hiri sare batetan, erdiguneko espazio argi eta irisgarri baten eratzea zaildu egin dutela*

[\* Dagoeneko jakina da tranbierik ez dela izango, eta udalak bi auzo arteko lineatarako eskaintza aterako duela ]

- ✓ 2/ "Avanzada"-k dakarren arazoa, zeinak merkatal fluxua eta jarduera tertziarioa bi espaloiaren artean deuseztaturik geratzen den.
- ✓ 3/ Leioako Kulturaren inguruan eratutako hiritarren espazio handiak eragindako dinamizari babesa eta laguntza emango dion erakartze merkatal polo baten gabezia aipatzen du
- ✓ 4/ Erdigunean dauden gune hutsen arazoa ere aipatzen du.

#### 5.4. LEIOAKO HIRI IKUSPEGITIK UDAL KUDEAKETARAKO HELBURUEN INGURUKO GARAPEN AZTERLANA

IKERFELe (Merkataritza Ikerketa eta Marketing Estrategikorako Institutoa) 2013an garatu eta 2014an aurkeztutako lana da. Udalerriarekiko, Leioako biztanleek erakutsitako poztasun maila ezagutzea du helburu nagusi. Jasotako hausnarketak atal kualitatibo eta kuantitatiboari dagozkie.

Helburu zehatzen artean definitzen ditu:

**1/Leiaeren inguruko pertzepzio orokorrari** dagokionez, 4 markatzen du

- Leioako bizitza kalitateaz hautemandako asebetetzea.
- Azken urteotan, udalerriaren garapen orokorra.
- Inguruko beste udalerriekiko analisi konparatiboa.
- Udal jardueraren inguruko balorazioa

**2/ Udalerriko arlo bakoitzeko zehetasunezko analisiaren** baitan, aztertzen dira:

- hiri ingurunearen kalitatea
- Mugikortasun eta garraioa
- Hiri segurtasuna
- Kultura
- Kirola eta Aisia
- Hirigintza eta Etxegintza
- Jarduera ekonomikoak
- Hiritarrari informazioa

Udalerrria zonalde hauetan banatu da:

- 1 –Erdigunea
- 2 - San Bartolome Artatza - San Bartolome
- 3 - La Txopera Lamiako - La Txopera
- 4 –Pinueta
- 5 – Artzagane - Sarriena
- 6 –Txorierrri

##### 5.4.1. LEIOAN BIZITZEAREN INGURUAN

1/ Inkestatutakoen arabera eta talde dinamikaren arabera, Leioako hiru arazo nagusiak hauek dira

Aparkalekuak	
Metroa urruti dago	
Komunikazioak	
Langabezia	



Trafikoa	
Hiri segurtasuna	
“Avanzada”	
Garraio publikoa	
(...)	
Dendak falta dira	6 %
(...)	
Pake eta berdeguneak falta dira	5 %
(...)	
“Bizitza soziala” falta da	4 %
(...)	
Auzo arteko komunikazioa falta da	3%
(...)	
Ardura gabeko auzo eta gunek	2 %
(...)	
Haur jolastokiak	2 %

**2/ Bizitzeko eta lan egiteko gune modura zenbateraino asebetetzen duen Leioak**

Leioako 5 bizilagunetatik 4k diote pozik daudela Leioan

Txorierriko biztanleak eta gazteenak dira asebetetze maila baxuena daukatenak. Balorazio kritikoenak: Lamiako – La Txopera eta gazteenak

**3/ Nolakoa da Leioako udalerria, zeintzuk dira bere ezaugarriak (fase kualitatiboa)**

**3.1.**

Herri “lasaia”

Bere biztanleek Bilboko “logela hiri” bezala definitzen dute

. \* Giro lasaia duen udalerrri izatearen inpresioak bi alderdi ditu: gazteena, positiboki ikusten ez dutenak; eta adin ertain eta nagusienena, elkarbizitarako gatazkarik ezan eragiten duen faktore modura ikusten dutenak.

**3.2.**

Indarrarekin agertzen den faktorea: herrikoa ez sentitzearena (jende gaztearen artean, nagusiki). Sentimendu bakarrik ez dagoela diote, ez dela herri bat baizik eta auzo askoz osatutako batuketa bat.

Aurreko sentimendua, hein handi batetan, udalerrriaren berezko hiri antolamenduarekin berrelikatzen da, laguntzen ez dioten bi alde agertzen direlarik:

- a/ Jarraipen ezaren sentazioa, hiri osaerarekiko artikulazio ezarena, (bai “Avanzada”-rengatik, baita bertan sakabanaturik dauden auzo eta herri nukleoengatik ere)
- b/Guztiak bildu, elkartu eta erreferentzi gune izango litzatekeen toki baten gabezia.

Aipatu ziren alderdi negatiboen artean:  
 - Herri esentzi eta nortasun eza

- Egungo polikiroldegi hondatua (2013)
- Girorik Gabe, bizirik gabe
- Eskaintza komertzial nahikorik ez
- Historikoki izandako eskariak: "Avanzada" lurperatzearena, metroa gerturatzea, polikiroldegia, etb.

**LABURPENA**

ARAZO NAGUSIAK: aparkaleku eza, metroraino dagoen distantzia eta komunikazioak orokorrean, Leioako biztanleen arazo nagusi bezala gailentzen dira.

**5.4.2. UDALERRIAREN ZEHAZTASUNEZKO BALIOESPENA**

**1/ Sailkatu egindako** udalerraren zehaztasunezko balioespenean, zehaztasunezko asebetetze mailari dagokionez azpimarratu daiteke, bosgarren mailan, %40aren azpitik, berriro ere agertzen direla:

Garraio publikoa
Kirol instalazioak
Trafikoa
Auzoen arteko oreka
Aparkatzeko erraztasuna
Zentzuzko prezioan etxebizitza aurkitzeko erraztasuna

**2/Alor ezberdinen arabera** egindakoan:

- PINUETA** ez dago pozik hauekin:
- ✓ espazio publikoak
  - ✓ segurtasun pertsonal maila
  - ✓ kultur gunek
  - ✓ argiztapena
  - ✓ azken urteotako BOE eskaintza
  - ✓ aparkatzeko erraztasunak

- LAMIAKO - LA TXOPERA** ez dago pozik hauekin:
- ✓ eskola zerbitzua
  - ✓ eraikitako espazioen kalitatea
  - ✓ airearen kutsadura eta ingurugiroaren zaintza
  - ✓ azken urteotako BOE eskaintza
  - ✓ kirol gunek
  - ✓ aparkatzeko erraztasunak

- ARTATZA-SAN BARTOLOME** ez dago pozik hauekin:
- ✓ garraio publikoa

**ARTAZAGANE – SARRIENA** ez dago pozik hauekin:

- ✓ garraio publikoa
- ✓ aparkatzeko erraztasunak

### 3/ HIRI INGURUNEA

“Azkenaldian eraiki izan diren BOE kopuru handia” da gailentzen den beste gaietako bat, zeina, nahiz eta orokorrean positiboki ikusi, kritika batzuk ere jasotzen dituen, hirigintza garapenaren hazkuntzak bestelako ekipamendu, zerbitzu eta udal azpiegituren garapenarekin proportzio berdinean bat egin ez duen pertzepzioan oinarriturik.

### 4/ MUGIKORTASUNA

Garraio publikoari dagokionez, positibo baino komentario negatibo gehiago.

- 1- Metroa udalerrira hurbiltzearen eskaera historikoa
- 2- Garraioa autobusean: barneko auzoen artean zein beste udalerriekin (aipamen berezia Bilbora doan zerbitzuaren maiztasunari)

### 5/ SEGURTASUNA

Txostenak dio segurtasun gabeziaren sentsazioa orokorrean minimoa dela.

- 1- Segurtasun eza eragiten duten puntu beltz zehatz batzuk aipatzen dira:
  - a/ Metroaren irteera errotondaraino
  - b/Libano Parkeko tunela (atzeko partea) eta bulegoetako eskailerak.
  - c/ Colegio Ingleserako bidea
  - d/ Artazako lurpeko pasabidea, aukeran lurgaineko pasabideak, lurpekoak baino

### 6/ ESKAINTZA KULTURALA

Balioespen oso positiboa, orokorrean

### 7/ KIROL ESKAINTZA

Gehiengoaren balorazioa, gazteak asko, polikiroldegi berria eskatuz (2013), egungoa eskasa geratu delako. Puntu honetan, eskaerak, egungo mantentze lanetara eta baita polikiroldegi berri bat egitearen beharrera bideratuta daude.

### 8/ VIVIENDA Y URBANISMO ETXEGINTZA ETA HIRIGINTZA

“Avanzada” lurpetik eramateko eskaera historikoa. Hobekuntza positiboa, ingurumenarekiko onura eta onura sozialak udalerriko zonaldeen arteko lotura eta kohesioan eragingo dutelako

Hirigintza: BOE etxebizitza zozketatzeko sistemaren konplexutasuna azpimarratzen dute.

### 9/ JARDURA EKONOMIKOA

Merkataritza txikizkaria hobetzeko beharra

- ✓ eskaintza komertzial eskasia
- ✓ egun, erakargarritasun urria
- ✓ komunikazio eta sustapen mugatua biztanleen artean
- ✓ eskaintzaren espezializazio eza eta kalitate eza
- ✓ profesionaltasun eza

LEIOAKO MERKATARITZA BIZIBERRITZEKO PLANaren ezaguera eza

### 10/ HIRITARREI INFORMAZIOA

Positiboki balioesten da udal informazioarekin ateratako aldizkaria, baina negatiboki ikusten da aldizkaria jasotzearen berandutzea.

### 5.4.3. PROIEKTUAK LEIOAN

Bost proiektu hauen aipatzen dira:

- 1/ Polikiroldegi berria (2013ko txostena)
- 2/ "Avanzada"-ren lurperatzea
- 3/ Tranbia-metroa unibertsitatera
- 4/ Leioako ikasleentzat ikasle egoitza
- 5/ Hiri autobus zirkularra (Leioako auzoak elkar lotzeko)

Guztiak positiboki balioesten dira.

## **5.5. HERRIGUNE**

2001etik garatzen ari den komunitate partaidetza duen proiektua da. Zentzu honetan, HERRIGUNE LEIOA inguruaren hezkuntza plan bat da eta hazkuntza jarduerari aurre egiteko modu berrien inguruan hausnartu eta sakondu nahi duen eragile sozial kopuru zenbat eta handiagoaren inplikazioaren bidez gauzatzen da

HERRIGUNE barnean dauden ekimenek garatutako jarduera eta helburuak azaltzea ez izan arren azterlan honetako gai, garrantzitsua iruditzen zaigu proiektu hauek hemen izendatzea Leioako HAPOrako egingo den idazketa berrirako analisisian kontutan hartuak izan daitezen.

HERRIGUNEKO lan taldeen baitan aurkitzen dira: BIIZBIDEAK eta UMEEN KONTSEILUA. Hirigintza analisiarekin erlazio handiena duten bi ekimenak direla iruditzen zaigu.

### 5.5.1. HAURREN HIRIEN SAREA – RED VASCA DE CIUDADES CON LA INFANCIA

#### (La citta dei bambini)

Haurren Hirien Sarea-ren webean dioen bezala, bi ekimen zehatzekin hastea da proposatzen dena:

- 1- Haurtzaroaren Kontseilu bat sortzea; edota alkate/alkatesa eta haur talde baten arteko komunikazioa.
- 2- Eskolara lagunekin; edota espazio amankomun-publikoan haurrekin elkarbizitzea.

### 5.5.2. UMEEN KONTSEILUA

Leioako Umeen Kontseilua LH4 eta LH5eko haurrek eratutako aholkularitza organoa da. Leioako ia eskola guztietako haurrek hartzen dute parte. Hilean behin elkartzen dira, eta lanerako metodologia aldatu egiten da urte bakoitzerako planteatutako lanen arabera. Lan talde batez ari gara, zeina Leioako haurrentzat parte-hartze esperientzia izateaz gain, alkatetzarako ere esperientzia den udalari dagokion gai eta proposamenetan haurren parametroa ere aintzat hartzeko ariketa eginez.

### 5.5.3. BIZIBIDEAK

BIZIBIDEAK ekipo bat da eta bere helburua ingurune fisikoaren bizigarritasuna eta Leioako mugikortasunerako autonomia hobetzea da. Hiritar, teknikari eta arduradun politikoek eraturako ekipoa da, beste jende eta esperientzietara irekia dagoena. *“ Jendeak hirian bizi eta jolasteko dauzkaten baldintzak eta bertan beren burua aurkitzeko ere espazio fisiko-urbanoak baldintzaturik dago. Erabiltzea, birpentsatzea, diagnosia egitea eta eraldatzea dira ekipo honen izatearen arrazoia”*

BIZIBIDEAK bere ibilbidea, jakin gabe, 2004n hasi zuen, Oinezkoen Pausoaren Martxa ospatu zenean (gaur egun ere segitzen du). Beranduago, 2007-08an zehar, eta 2010ean “Eskolarako Bidea”ren inguruan egin zuten lan, hirigintza estrategia modura. 2014ean, proposamena **BIZIBIDEAK** modura berrizendatu zen. 2016ean (Haurren Hiriara elkartzearekin bat), lantaldeak Francesco Tonuciren proposamenari ekin dio berriro, “Eskolara lagunekin” izenekoa.

## 6. ONDORIOAK

### LURRALDEA

- ✓ Topografia da udalerraren beraren eta auzoen arteko artikulazioa baldintzatzen duen ezaugarririk garrantzizkoena. Beraz, Leioako hirigintza aztertzeko garaian, beti eduki beharko da kontutan daukan orografia desegokia.
- ✓ Udalerraren konfigurazio espazial sakabanatua (bata bestearen alboan kokaturik ez dauden auzoak, eta sarritan gaizki komunikatuak edota komunikaziorik gabe beraien artean)
- ✓ Sakabanatutako udalerrria, auzoen arteko loturarako kotxearekiko ia menpekotasun osoarekin.
- ✓ **“Avanzada”** errepideak udalerrria bitan zatitzen du (iparra eta hegoa)
- ✓ Lamiakoko kaiaren berreskuratzea, Leioa urari ireki eta herritarrei espazio natural ireki honi bidea irekitzeko.

### HIRI EREDUA

- ✓ Herritar guztientzat **erreferentziatzko** den **espazio publiko nagusi, sinboliko** eta **nortasunezko** baten gabezia (Udalerrri mailan) dago.
- ✓ Herri/hiriarekiko atxikimendu edo nortasun sentipen urria dago.
- ✓ HAPOak proiektatutako **etxebizitza hazkundearen politikaren** ondorioz (1000 etxebizitza), **biztanleriaren hazkuntza** egon da.
- ✓ Hiri hazkundera, migrazio-saldo positiboaren kariatz.
- ✓ Ondorioz, **“logela-hiri”** eredura jotzen duen joera geroz eta gorakorragoa da.
- ✓ Biztanleek herri “lasai” modura ikusten dute (besteak beste, “logela-hiri” izatearekin lotuta dagoena).
- ✓ Ordea, biztanleriaren beste parte batek faktore negatibo bezala ikusten du lasaitasun hori, “logela-hiri” izateak dakarren aktibitate, giro eta bizitza gabeziari lotuta.
- ✓ Biztanleria nahiko gaztea da, besteak beste, etxebizitza eskaintza eta hezkuntza gune eskaintza ugariak erakarritakoa.
- ✓ Eskola-eskaintza ugaria udalerrri atseginarekin lotzen da.
- ✓ Ipar eta hegoaren arteko desoreka zantzuak daude.
- ✓ Auzoen arteko oreka sustatu behar da.

- ✓ Nahiz eta Udaletxeak baieztatu auzoen arteko eta erdigunearekin lotura hobea egin dela, hori aztertzerakoan argi ikusten da ibilgailu pribatuaren mugikortasunez ari direla soilik.
- ✓ EHUko kanpusarekin lotura eta erlaziorik eza eta ondorioz, ikasleak kokatzerakoan, Leioak ezin du leku garrantzitsu bat izan ezta horrek ekarriko lukeen aktibitate edota hiri giroaren hazkundera eragin.

## ESPAZIO PUBLIKOA

Espazio publiko eta berdegunez ari garenean, gune horien eskala zein den azpimarratu behar da.

Udalerrri mailako espazio publiko eta berdeguneak badira, udalerrri osoari zerbitzua ematen diotenak (eskala, dimentsio, adierazgarritasun, erreferentzia, singularitasunagatik, etab). Sarritan, gune irekien sistemaren barnean sailkaturik daude (lurraldetasun izaera handiagoak dutenak) eta egunero "erabiltzen" ez ditugun gune horiek eratzen dute (esate baterako, biztanleri osoak udalerrriaren sinbolotzat jotzen dituen erdigune edo plaza sinbolikoak. Edota singularitasun berezia duten udalerrriko gune irekiak: urtegi, hondartza, duna, hedadura handiko parkeak, etab)

Ondoko eskala batetan kokatzen dira auzo mailako gune ireki eta berdeguneak. Auzo mailan, nortasunezkoak eta erreferentziazko horiek osatzen dute (esaterako, auzoko festak ospatzen diren plaza. Edota auzoari zerbitzua ematen dion parkea, zeina udalerrrikoaren maila eta etxebizitza artean egoten diren parke txikien maila arteko batean kokatzen den)

Azkenik, eta hurbileko eskala batetan kokatu daitezke espazio publiko eta berdegune "domestikoak". Gure eguneroko bizitza garatzen dugun tokitik metro gutxitako erradio batean aurki ditzakegunak dira (oinuz, 5-10 minututara asko jota, urrutienara 300 metrotara kokatutakoak diote batzuk), egunero erabiltzen ditugunak eta eguneroko bizitzaren garapenari kalitatea ematen diotenak.

Sarean planifikaturik egon behar dute beti hiru mailatako espazio publiko eta berdegune hauek, hau da, oinezkoen jarraitutasuna bermatuko duen elkar loturik dagoen espazio sistema bat eratu behar dute (gutxienez, eta bizikletaz egiteko ibilbideak sartuz joan beharko litzateke bertan). Ibilgailuen ibilbideen alternatiba badira, balio handiagoa hartuko dute, lasaiagoak izango direlako. Sarean planifikatzeak esan nahi du hirien eraikuntzak dakarren "betetasunetik" baino, "hutsunetik" proiektatzea.

Leioara etorrira, maila domestikoan, espazio publiko eta berdeguneen gabezia handia da, areago hegoko auzoetan. Erdiguneko zonaldea "itota" dago, eta gune ireki eta berdeguneei dagokionean, "kolapso" egoera batez hitz egin daiteke, gune horietako biztanleei zerbitzurik ematen ez zaielarik. Auzo mailan ere gertatzen da, hein handi batean, zeinetan batzuetan badagoen espazioa baino ez dituen beharrezko baldintzak betetzen auzo osoarentzat adierazgarria den tokia izateko. Maila zabalago batetako espazioei dagokionez, Leioan ezaugarri hau duten hainbat espazio eta berdegune aurki daitezke; hauen arteko lotura izan eta sistema erreala eratuko lukeen sarea ehotzea litzateke aukera bat.

- ✓ Auzo eta maila domestikoan berdegune eta aise gune gehiagoren beharra.
- ✓ Nahiz eta berdegune zabalak dituen udalerrria izan, (topografiak ere baldintzatu ahalbidetzen duelarik), “Avanzada”-ren hegoaldera dauden auzoetan batik bat, gertuko espazio publikoen gabezia hautematen da. Eta dauden tokietan, ez dira kalitatezkoak eta ez dituzte beharrezko baldintzak betetzen.
- ✓ Nahiz eta badagoen biztanleko 14 m<sup>2</sup> behar duela dioen estandarra eta berdegune asko agertu plano bat ikusterakoan, auzoen artikulazioan eta beraien ordenamenduan sartzean pertzepzioa aldatu egiten da, batik bat ez direlako eguneroko bizitza ahalbideratu eta kalitatea ematen dutenak.
- ✓ Aipatutako hiru mailen arabera, espazio publikoen eta berdeguneen azterketa bat burutu. Jasotako gabeziak aintzat hartuta, toki hauetako auzoak hornitzeko plan bat abian jarri.
- ✓ “Avanzada” lurperatzeko aldarri historikoa
- ✓ Espaloi eta oinezko ibilbideen egoera eta mantenua hobetu.
- ✓ “Avanzada”-k udalerrria zatikatu egiten du., baino estalirik dagoen erdiguneko zatian, rol anbigua dauka, non aktibitatea badagoen, “hiri egite” aldera, eta hiri ekimenak aktibatu eta sustatu.

### INGURUNEAREKIN HARREMANA

Leioa espazio ireki zabalak dituen udalerrria da, haietako asko kalitate handikoak eta paisai-ahalera askorekin. Bere lurraldera lehen aldiz urreratzean ikusten dena da maila gorenean dauden udalerriko guneekin daukan iparraldeko muga “berdea” eta hegoaldeko muga “urdina, itsasorako irteerarekin..Bigarren aldian, ordea hiri bilbearen artikulazioaren irakurketan eta ingurunearekiko artikulazioan ikusten da ez dela itsasadarreraino heltzen den udalerrri bat.Esan genezake, paisai, ingurumen eta ondare-ahalera eduki arren, udalerrriarekiko itxia dagoen espazioa dela. Kudeaketa osagai garrantzitsua duen gaia da (administrazioen eta agintarien arteko kudeaketa), baina hori ez dela ez lantzeko eta egungo egoera aldatzeko aitzaki (beste udalerritan gertatu den bezala). Udalerrriaren suspertzea hasiera on bat izan liteke Leioako gune irekiak sarean lantzeko eta beraien arteko loturak eratzeko, “mendi-itsaso” artekarien bitartez.

Gainera, itsasoarekin muga egiten duenhego fronte hau, beste udalerrri batzuk itsasora heldu ahal izateko egokitzen eta konpontzen ari diren metropoli-ibilbide barruan dago (oinezko eta bizikleten ibilbide barruan). Lamiakoko kaiaren egokitzapena metropoli-bide berde honekin lotuta etor daiteke.

- ✓ Udalerrri barruan dauden gune ireki zabalak, bertan bizi diren pertsonekin eta udalerrri berarekin dauden erlazioak sendotu, kudeatu eta ahalbideratu.Zentzu honetan, Lamiakoko kaiarena lantzearena lehentasuna izan beharko luke, hiritargoarentzat berreskuratzeko gune natural bezala (lehenik kudeaketarena negoziatu beharko litzatekeelarik eta ondoren,



berreskuratu, biztanleek erabili ahal izateko).

- ✓ Itsasorako sarrera duen udalerrria izan arren, egiatan ibai-guneari bizkar egiten dion udalerrri izateari ezin dio utzi. Leioa "itsasoraino heltzea" nahi izatera, arazo hau konpondu beharko da.
- ✓ Oinezkoen bideak egokitu, bai oinezkoen eta baita bizikletan dabilen jendearentzat, ibaiadarrera doan errepidean (BI-711), jada existitzen den metropoli-artekaria ahalbideratuz eta jarraipena emanez.
- ✓ Udalerriko espazio irekien sistema eratzen duten sistema eta oinezko eta bizikleten artean loturak eratu, egiazko espazio irekien sarea eratur. (Leturtza- Lertutza-Gerediagurrebaso urtegia, Lamiakoko Kaia, Artatza, Pinosolo, Ondiz, iparreko zonaldea,...)

### EHU-KO KANPUSA

Nahiz eta EHUko kanpusa udalerrian kokaturik egon, ez du inolako eraginik bertan. Kanpusak, kokaturik dagoen udalerriri bizkar emanda bizi dela esan liteke, kokaturik dagoen lekuarekin ezer ikustekorik ez duen izate autonomo moduan. Inoiz baino gehiago zuzendu beharko luke Leioak disfunzio hau, Kanpusa eta Parke Teknologikoaren ingurukoarekin loturik dauden udalerriko alternatibei irtenbide bat bilatze aldera. Mapan hiri unibertsitario gisa kokatuko luketen alternatibak bilatzea, horrek dakarren guztiarekin (aktibitatea, bizitza soziala, bizitza kulturala, zerbitzuak, etab.)

- ✓ EHUko Kanpusa eta udalerrriaren arteko lotura hobegotu (apostu eta alternatiba erre bat egon arte, behintzat, autobus bitarteko lotura hobetu beharko litzateke)
- ✓ Metro eta Kanpusaren artean, orain arte planteaturiko tranbia bidezko loturaren alternatibaren azterlana burutu..
- ✓ Unibertsitate ikasleentzako egoitza proiektua berrartu, ikasle eta udalerrri arteko beste erlazio batekin abiatzeko eta ikasleak bizi daitezkeen tokia izan dadila

### MUGIKORTASUNA

**garraio publikoa/ mugikortasuna bizikletan /oinezkoen mugikortasuna- hiri barneko oinezko ibilbideak**

#### GARRAIO PUBLIKOA

Urteak daramatza Leioak zain, erdigunetik igaroko den metroaren estazioa eta Kanpusaren arteko tranbia bidezko loturaren instalazioa noiz egingo. 2018ko udaberrian, Eusko Jaurlaritzak jakinarazi du, azkenean ez dela eraikiko. Metroaren estazioa, hein batetan, horren zain ere bazegoen. Orain, egoera berri honen aurrean, udalerrriak asko luzatu gabe konpondu beharko duen beste egoera bat dauka aurrean, izan ere, eskaera historikoak baitira eta herritarren artean, pertzepzio orokortuak: metroa urrutiegi dagoela, erdigunearekin lotu behar dela eta Kanpusarekin ere lotura ona izan behar dela.

Bestetik, auzoen artean lotura hobetu beharra oso zabaldua dagoen eskaera ere badaZentzu horretan, Udalak bi udal linea berri eraikitze eskaintza aterako du aurki. Komenigarria litzateke, bai bi linea hauen ibilbideak eta baita aurreikusitako geltokiak ere auzoetako eta bertako biztanleek dituzten beharrekin adostuta egotea, hedapen handiena eman ahal izateko eta jendearen egunerokotasun eta behar errealetara egokitzeko. Geltokien diseinu eta kokapenari dagokionez, ahalik eta barneratzaileen eta segurtasunezkoen izateko alorrak hartu beharko dira aintzat.

#### MUGIKORTASUNA BIZIKLETAZ

Azken urteotan bizikletan joateko bideak jarri badira ere, ez daukate auzoetan zehar jarraikortasun nahikorik. Gainera, ez diote irtenbiderik ematen, esate baterako, lanera joateak eskatzen duen nahitaezko mugikortasunari. Aisialdirako pentsatutako bideak dira. Joan etorrietarako beste arrazoi batzuk hartu beharko lituzkete kontutan, ibilbideen jarraikortasuna eta beraien arteko loturak bermatu, eraiki behar diren zati berrien diseinua berrikusi eta ibilgailu pribatuaren alternatiba modura mugikortasun modu honen alde apustu egin (bereziki, tarte luzeegiak ez direnean). Gune irekien atalean azaldu bezala, sarean planifikatu eta eraikitzean datza, xake taula bat izan dadin, nondik loturen bitartez, jarraikortasunez mugitu ahal izan.

#### OINEZKO MUGIKORTASUNA- OINEZKOENTZAT IBILBIDEAK

Oinezko mugikortasunak gabezi nabariak dauzka (jarraikortasuna, ezaugarriak, espazioaren diseinua, eta espazio nahikoa) eta topografia eta ibilbideen ezaugarriak direla-eta auzoen artean ez da erraza (adibide garbiena Txorierriko auzoarena da, Ondizetik pasatzerakoan). Hala ere, Leioako herritar asko mugitzen da oinez. Oinezko joan etorriak espazio publikoarekin lotuta daude, eta sarean banatuta daudenean sistema konektatu bat eratuz, berme handiago daukate. . Beraz, espazio publiko eta berdeguneen aferarekin koordinatutako lana izan behar du. Bukatzeko, aipatu hiri barneko oinezkoen ibilbideak are hobek direla ibilgailuei alternatiba direnean, hau da, ibilbide hauek eta ibilgailuenak, paraleloak ez direnean.

- ✓ Garraio publikoa da biztanleek hirigintza arazo giltzarritzat jotzen dutena
- ✓ Udalerriko barne komunikazioa (auzo artekoa, batik bat) da konpondu beharreko beste arazo giltzarrietako bat
- ✓ Kanpo komunikazio ere ikusten da konpondu beharreko arazo moduan; Bilborekin garraioen maiztasuna delarik haietako bat
- ✓ Metroa erdigunearekin lotzeko ahobatezko aldarria.

- ✓ Metroa urruti egotearen pertzepzioa eta aldarrikapena.
- ✓ Metroa EHUraino luzatzea.
- ✓ Ibilgailu pribatuarekiko menpekotasun handia dago.
- ✓ Bizikletan mugitzearena, aisialdirako mugikortasun gisa baino ez da ikusten, eta ez egunero lanera joateko edo beste aferetarako. Edozein motako joan etorri edo mugikortasunerako arrazoi aintzat hartuko dituen bizikletarako ibilbideak diseinatzeko beharra.
- ✓ Orokorrean, komunikazioak hobetzeko beharra.
- ✓ Hiri autobus zirkularren eskaera orokortua.
- ✓ Txorierri- Lamiakorako eskailera inklinatuen proiektua berreskuratzea.
- ✓ Jakin berri da (2018ko udaberrian) ez dela Udondo-erdigune-EHUrako aurreikusitako tranbia jarriko. Biztanleriaren pertzepzio, behar eta alternatibak balioztatu.

## TRAFIKOA

Nahiz eta indarrean dagoen HAPOaren alderik positiboenetakoa izan auzoek arteko loturak eratu izana, "herri bakarra" egitearen aldeko hautua indartuz, egoera hurbiletik aztertzerakoan azaleratzen da, hasteko, udalerraren iparreko alden ematen dela, eta bestetik, lotura horiek ibilgailuentzat pentsatutako bideez soilik eraikita daudela (kontutan edukita gainera, gaur egungo Leioako garraio publikoaren egoera ezagututa, ibilgailu pribatua dela gehiengo handi batetan erabilitakoa, EHUtik jaisten diren autobus gutxi batzuk kenduta, zeinak gutxi batzuk diren eta maiztasun luzeekin). Egia da auzo hauen arteko loturek hobera egin dutela, ez dutelako "Avanzada"-ra jaitsi behar ondoko auzora joateko. Baina osatu gabeko alternatibak dira, mugikortasun mota bakarra hartzen baitute kontutan.

- ✓ **Aparkatzeko gabezia** da biztanleriak agertzen duen arazo giltzarrietako bat.
- ✓ "Avanzada"-ri **irtenbide perimetralak** bilatu.
- ✓ Foru Aldundiaren proposamenei ordezeko konponbideak bilatu.

## EKIPAMENDUAK

- ✓ Nahiz eta HAPOa egitura orekatu bati buruz aritu eta hiri-sareko banaketa bizitoki guneen beharren arabera izan, ekipamendu eta zerbitzu gehienak erdigunean daude bildurik gehienbat, estaldura urriko auzoak agertzen direlarik.
- ✓ Auzoetako eskaera eta beharren inguruko azterlan bat burutu, etorkizunean horren arabera planifikatzeko.

- ✓ Ekipamenduak kokatzerako orduan, erabiltzaileak nortzuk izango diren aintzat hartu (pertsonek helduek, adibidez, azaltzen dute polikiroldegirako aurreikusitako kokagune berrira ezingo luketela iritsi, orubearen ezaugarri topografikoengatik eta Sakonetan kokatzearen alde agertzen dira)
- ✓ BOE kopuru handia eraiki da baina ez bestelako ekipamendu eta zerbitzuen proportzio berean.
- ✓ Unibertsitateko ikasleentzat egoitza eraikitzearena, udalerrirako ekimen eta proiektu egokitzat ikusten dute, baina denbora luzean burutu gabea.
- ✓ Udalerriak EHUren baliabideak erabili ahal izateko akordio batera heltzearena ongi ikusten dute (denbora tartean edo noizbehinkako erabilerak adosteko, baina gaia baloratzeko prest)
- ✓ HAPO berriak auzoen arteko ekipamenduen eskaintza orekatu beharko du baina motaka, ekipamendu sarea irisgarria izan dadin eta biztanleri guztiari eman diezaion estaldura (kokapena, adina, erabili beharreko ekipamendu mota). Hau posible ez balitz, behintzat baliabideen irisgarritasun erradioa handitu.

## ETXEBIZITZA

HAPOaren berrikusteak 1000 etxebizitza gehiago eraikitzea plantatu zuen, 2015etik hona 700 eraiki direlarik jada. Eta oraindik ere badaude eraikitzeke batzuk. Argi dago udalaren hazkunde politika etxebizitza eskaintzan oinarritzen dela (alboko udalerrietan baino irisgarriagoa). Auzoko hezkuntza zentro zabal eta anitzarekin loturik doa hein batetan (eta planteamenduzko edo erabaki politikoengatik zeharka), eta non finkatu bila dabilten familiak Leioan aurkitzen dute beraien lekua. Bizitoki hazkunde hau, ordea, ez dator bat bizitoki promozio horietako bestelako erabilera batzuekin; horren ondorioz, funtzio bakarreko auzoak bilakatzen dira, non ez dagoen erabilera nahasturarik eta ordutegi zehatz batzuetan funtzionatzen duten (bete eta husten dira); bizitoki funtzioa besterik ez duten auzoak, logela modura funtzionatzen dutenak. Ez dute kale girorik, eta nahiz eta lasaiak iruditu, lasaitasun horren atzean hirigintza disfuntzio handi bat ezkututzen da.

Leioako egoera partikular hau ikusita, etxebizitza gaia hiri ereduarekin berez dator loturik. Finean Hirigintza Antolakuntzarako Plan Orokor batek galdera bati erantzuten dio (ondoren alde anitz eta konplexutan garatzen du): “zer da udalerrian “handitan” izan nahi duena? Desio den hiri eredia definitzean datza, ondoren horren arabera planifikatu ahal izateko. Argi dago indarrean dagoen egungo HAPOak bizilagun berriak erakarriko zituen bizitoki hazkunde sakon baten aldeko apustua egin zuela eta gaur egun bere helburua lortu duela. Orain afera da idatzi behar den HAPO berriak saldo migratzaile positiboetara lotutako bizitoki eskaintza oinarritutako hazkunde eredian finkatuta mantentzen jarraitu nahi duen planteamendua. Biztanleriaren pertzepzioa da Leioak baduela “logela-hiri” zantzu nabaritu kale giroa faltan duena geroz eta nabariago eta asteburuetan hustuegiten den. Honi gehitzen bazaio eraikitako bizitoki auzoek ez dutela herri izaerarik, eta udalerriak nortasunezko erdigune sinboliko eta erreferentziazko gabezia areagotzen duela, ez dirudi hiri eredia lerro berdinetik

jarraituko duen planteamendua denik egokiena. Hiri baldintzak hobetu eta Bizi kalitatea bermatzearen alde eta Leioako biztanleen beraien egunerokotasuneko beharren garapen optimo baten egin beharko luke.

Kontzeptualago eta ereduzkoa den planteamendu honetaz gain, badaude udalerrian duela hamarkada batzuk eraikitako etxebizitza multzo kontsolidatuak, beraien baldintza orokorrean hobekuntza behar dutenak (sarritan, amankomuneko komunikazioak, pertsona heldu eta mugikortasun murriztua dutenentzat) Interesgarria litzateke HAPO berriak, hasierako azterlanetan egun udalerrian dauden etxebizitzak, edo behintzat, 50-60-70-80ko eta are, 90ko hamarkadetan eraikitakoak aztertuko balitu. Bizitoki dien auzoak, hala nola Txorierri kasu, aipatutako parametrotan arazoak eduki ditzaketen etxebizitza eraikinak dituenak. Pinuetan ere gerta daiteke, non bertako biztanleen gehiengoa adinean aurrera egindakoak den.

## INDUSTRIA

Lurzoru industrialak Lamiako eta Udondoko ardatzean pilaturik daude, indarrean dagoen HAPOAak azaldu bezala. Ez dirudi hau arazoa denik, baina ehun industrialak alboko hiri ehunarekin dauzkan mugak eta loturak aztertu beharko lirake (adibidez, Udondotik gertu dagoen metro geltokiko ingurunea) Ehun ezberdinetako gune hauek hobegotzea hiria atseginagoa bilakatzen du eta inguruan segurtasun pertzeptzioa ere handitzen da.

## MERKATARITZA

Aurreko ataletan aipatu izan den bezala, nagusiki erdigunean kokaturik dago auzoko merkatalgo minoritarioa. Pinueta bezalako auzotan eskaintza zerbait egon arren, ez da ohikoena, are gutxiago eraiki berri diren eta 'logela-bizitoki' funtzio bakarra daukaten auzotan. Merkataritza mota hauen gaitetik, hedapen handiko merkatal handiek gora egin dute, eta biztanleagoaren pate batek arazotzat jotzen du. Artea Merkatal Gunea ere bada, merkatalgo txikiari laguntzen ez diona, nahiz eta Leioan ez lortu ahal zezakeen adina indar, eta beste udalerririk batzuei eman zerbitzu handiagoa. Egungo eskaintzarekin bada arazo bat, eta udalak ongi daki hori sustatu egin beharra duela. (erdigunean gora egiten ari diren lokal hutsekin erlazioa ere baduena).

Merkatalgo txikiaren existentzia ezinbestekoa da auzoaren biziraupena bermatzeko; kaleetako segurtasunerako ("Kale betea, segurtasuneko kalea"); eguneroko bizitzarako beharrak asetzeko; erreproduktzio lanak errazteko; auzo pertzeptzioa areagotzeko... 'auzoa egiteko', azken batean. Beraz, ezinbestekoa da, kudeaketa, plangintza eta diseinuaren ikuspegi barneratzaile batetatik ikusita. Leioan badira, hurbileko saltokirik apenas ez duten auzoak; erdigunea, kontzentrazio handiena eduki arren, atzeraka bidean doa. Egoeraren joera aldatu dadin, gai hau aztertu beharra dago.

- ✓ Lokal hutsen arazoa erdigunean. Dinamizazioa falta da.
- ✓ Hala ere, eta udalerriko beste auzoekiko, saltokien gehiengoa erdigunean dago kokaturik
- ✓ Merkatalgo minoritarioak behera egin du, eta joera hori aldatzeko neurriak behar dira

### BIZITZA LEIOAN

- ✓ Iparreko erdigunean hiri aktibitatea falta da: Kultureko ingurua eta udaletxea
- ✓ Biztanleek diote asteburutan herria 'hustu' egiten dela
- ✓ Errekalde plaza eta Ramon Aketxe Plaza guna urbanoa izateko asmoarekin proiektatu ziren., baina ordea, ez dute espazio publiko bezala funtzionatzen: hutsik egoten dira gehienetan.
- ✓ Hala ere, "Avanzada"-k badauka hiri aktibitatea toki estalietan.
- ✓ Getxoren aldamenean egoteak ondorioak dakartzkio Leioari: Getxok bizitza social handiago dauka, baina etxebizitza garestiagoak. Horregatik, Getxorekin muga egiten duten auzoetan batik bat, eguneroko bizitza Leioan egiten ez duen Getxoko jendea bizi da, baina Leioan erosi dute etxea, merkeagoa delako ('logela-etxebizitza' efektua)
- ✓ Iparreko gunek, hegokoak baino hustuagoak gertatzen dira; bertan daude auzorik kontsolidatuenak eta aitzinagokoak.
- ✓ Pinuetak asko jotzen du Getxora, aldamenean dagoelako eta Leioako erdigunetik aldenduago.

### BIZIKIDETZA / ANIZTASUNA

- ✓ Badirudi ez dagoela segregazio sozial arazorik territorialki (auzoka), nahiz eta "Avanzada"-ren iparraldera kokatutako auzo "berriek", hegoaldean kokatutako auzo herrikoiek baino erosahalten handiagoa duten populazioa jaso duten.
- ✓ Pinuetako auzoan pilatzen da beste auzoetan baino adin handiagoko biztanleria.

### SEGURTASUNA

- ✓ Azterlan batzuetan, herritarren aldetik segurtasun eza minimo baten sentrazioaz hitz egiten bada ere, beste batzuetan, beste arrazoiengatik segurtasuna pertzepzioa ona ez duten tokiak aztertzen dira. Genero ikuspegia ezinbestekoa da segurtasun/segurtasun-eza pertzepzioaren gaian.
- ✓ Genero ikuspegi eta ikuspegi barneratzaile batetatik, udalerriko puntu beltzak eguneratu, zehaztu eta ongi definitzeko beharra.
- ✓ Puntu beltzen azterlanean diagnostikatutako gunek horietan aldaketak, ekintzak, egokitzapenak, etab. burutu

## KUDEAKETA

- ✓ Herrigune bezalako egitasmoak izan arren, , herritarrek ez dute sentitzen beraiek aintzat hartuak direnik udalerrriaren kudeaketa gaietan beraien parte hartzerako.
- ✓ Udalak bultzatutako egitasmo, programa eta proiektuen inguruko ezjakintasun handia daukate herritarrek.
- ✓ Bestalde, Udalak herritarren parte hartzea sustatu eta eragiteko ateratako deialdietan asko kostatzen da biztanleek parte hartzea, eta batzuetan, ez dago izen ematerik.
- ✓ Udalaren herritarren parte hartzerako sailak ez du lortzen transbertsalki funtzionatzea, zentzu horretan kudeaketa on bat bermatzea ahalbidetzeko.
- ✓ Udal aferak zabaltzeko eta erakuslehoio modura balio duen aldizkaria beranduegi heltzen da deialdi eta egitasmoen berri garaiz emateko.
- ✓ Dokumentu eta informazioa lortzeko, Udalak LeioZabalik moduko gardentasunezko ataria badauka ere, sarritan eguneratu gabeko datuak dauzka, eta zaila izaten da haiek aurkitzea.

## AUZOAK

Leioako auzoak oso ezberdinak dira beraien artean. Nortasun handikoak badaude, Pinueta eta Lamiako, adibidez; badaude berriagoak ere, Aldekoena kasu, nortasun sentipen txikia daukatena. Auzo berriak, bizitoki izaera soila besterik ez dutenak eta Leioako 'betiko' jendea bizi diren auzoak. Esan daiteke Leioa, hedatutako auzo ez osatua dagoela, askotan batzuk besteekin erlaziorik eduki gabe funtzionatzen dutenak. Indarrean dagoen HAPOak auzoak lotu eta hiri ideia/sentipen bateratu baten alde egin bazuen ere, ez zuen erabat lotu. Udalak aurki martxan jarriko dituen bi autobus linea urbano berriak (egun lizitazio fasean daudenak) auzo guztiak lotzeko berebiziko garrantzia izango dute, eta martxan hasi eta denbora tarte baten ondoren, eraginak aztertu beharko dira, herritarren eskakizunari benetako erantzuna ematen dion ikusteko (maiztasuna, ibilbideak, geltokiak, irisgarritasuna, etab.).

- ✓ Auzoetara iritsi ahal izateko eskakizuna, bereziki, Txorierri, La Txopera eta Lamiakora.
- ✓ Txorierri, La Txopera eta Lamiako dira auzorik deskonektatuenak, edota eskakizun kopuru handiena dutenak.
- ✓ Auzo gehienak bizitoki soil izateko joera dute, iparrekoak batez ere, berriagoak edo eraikitzen ari direnak ('logela hiri' efektua)
- ✓ Aitzinagoko auzoei, nortasun eta ikusgarritasun handiago dutenei, nahiz eta bizitoki soil ez iza, aktibitatea falta zaie eta hein handi batean, merkataritza ere.
- ✓ Ibilgailuaren presentzia espazio publikoan handia da, batez ere Pinueta eta Txorierrin.

“Avanzada”-k bitan banatzen du Leioa: Iparra eta hegoa. Auzoak zatiketa honen arabera multzokatzen dira.

### 1- IPARRA

- ✓ ARTAZA ETA TELLERIA  
Jada eraikitako auzoak, bizitegi-guneak, aktibitate gutxirekin. Bertan bizi den jendeak ez du kale bizitarik egiten Leioan eta sarritan Getxora jotzen dute.
- ✓ ARTAZAGANA ETA ALDEKOENA  
Promozio berriak badira ere, Artatzagana ia eraikita dago. Aldekoena ere ia erabat eraikita dago, Udaletik igoeran etxebizitza promozio berriak, BOEak haietako batzuk, garatzen ari badira ere. Bia auzoek dute bizitoki izaera nabaria, ia saltokirik gabe eta aktibitate ezarekin. Beste udalerritik datorren biztanleria hartzen dute barne (saldo migratzaile positibotan oinarritutako hazkundera, inguruko udalerrietakoa baino merkeagoa delako etxebizitzaren eskaintza)
- ✓ BASAEZ-NEGURIGANE  
Bizitoki-gune auzoa, familia-bakarreko edo etxe elkarri atxikiak diren etxebizitzaz eratua, Telleria eta Artaza alboan. Kanean ez dago bizitarik ezta aktibitatearik eta gune ‘publikoek’ izaera pribatua daukate. Leioako bizitegi gune argi bat da Eguneroko bizitzarekiko biztanleriaren behar eta eskakizunen azterlana, jan-etorriena eta zerbitzu eta ekipamenduena.
- ✓ IPAR ELEXALDE  
Udaletxea, bertako bulegoak Kultur kultur etxea eta udal mailako zerbitzu gehienak kokaturik dauden erdialdeko iparreko gunea. Iparralderago dagoen zatian (handiagoa) eraikin berriagoak daude, eta hegoaldean, batez ere polikiroldegia dagoen gunean, antzinagokoak diren eraikinak.  
  
Aztetu zergatik bi plaza nagusiek (Errekalde eta J.R. Akerretzek) ez duten lortzen aktibitate eta nortasun eragile moduko espazio publiko bezala funtzionatzea. Aktibitate eta bizitza soziala areagotzeko konponbideak bilatu.
- ✓ IKEA ETA MENDIBILE - DONIBANE/SAN JUAN MULTZOA ETA ITURRIBIDE MULTZOA  
Mendibile parkearen inguruan dauden etxebizitza multzoa. Aspaldi eraikitako bizitoki auzoak dira, eta beraz, kontsolidaturikoak. Leioako jendea bizi da bertan. “Avanzada”-rekin muga egiten duten guneek zerbitzu eta erabilera gehiago dute, eta beraz, aktibitate handiagoa.



Espazio publiko, ibilbide eta irisgarritasunerako aukeren analisisia egin, batez ere, segurtasun, irisgarritasun unibertsal eta egunerokotasunaren pertzepzioarekin lotutako genero ikuspegi batetik.

Kontsolidatutako auzo eta etxebizitza multzoak direnez, ekipamendu eta zerbitzuen eskakizuna aztertzea baino, erdigunearekin (ipar eta hegoarekin) lotura nola erraztu eta bermatzeko moduak bilatu beharko lirateke. Hala nola "Avanzada"-ko gunea atseginago nola egin, zatiketa ekidin eta bi aldeen arteko harremana sustatzeko

✓ PERURI

Arteako Merkatal Gune azpian kokatzen da, eta egun, udalerriko landa auzo bakarra da HAPO berriak landa izaera hau ziurtatu eta kontsolidatu beharko luke, zainketa bidez, baino baita kudeaketa bidez, hein handi batean, bere izaera propioa eta betikoa mantendu duen auzo bakarra izateagatik.

Bertan bizi diren herritarren fluxu eta ibilbideak aztertu, benetan dituzten beharrekina parekatzeko eta logela-bizitoki izaera soila ez edukitzeko, dauzkaten gabeziak aztertzeko asmoz.

Ekipamendu publikoaren eskakizuna balioztatu

✓ SANTI MAMI

Bizitoki auzoa, udalerrirako sarreran kokatua, merkatal gunearen bestaldera. kontsolidatutako auzoa.

Biztanleriaren behar eta eskari errealek azterketa, batez ere, erdigune eta beste auzoekin dituen loturak behatu. Barne mugikortasuna eta udalerriko beste guneei.

✓ SARRIENA

Bata besteari atxikitako etxebizitzek eratutako bizitoki auzoa, Aldekoena eta Artatzadanatik iparraldera. Nahiz eta mendebaldean kokaturiko bizitoki auzoetan baino aktibitate handiago egon, bizitoki erabilera bakarra duen gunea da. Beste erabileren beharra eta eskakizuna aztertu beharko litzateke: espazio publikoena, zerbitzu eta ekipamenduen; eta herritarren beharrak egunerokotasunaren garapenerako eta horretara lotutako joan etorrietarako.

## 2- HEGOA

✓ HEGO ELEXALDE

"Avanzada"tik bestaldera kokatutako hegoko auzoan hasten da. Iparrera geratzen den parteak (handiagoo) eraikin berriagoak ditu, eta honoko hegoko gunek, polikiroldegi inguruan batik bat, askoz antzinagokoak. Hegoko gunek honetan "defizit urbano" nabaria ematen da, hein batean, hiri konfigurazio beragatik eta eraikinen antzinakotasunagatik.

Gune konplexua bat da, espazio publikoari, eraikinen mantentzeari, irisgarritasunari, gune irekiei, plaza eta aisialdirako guneei, etab-i dagokionez hiri gabeziak azaltzen baditu ere, Leioan bizitza handien duen gunea baita. (batez ere merkataritza eta polikiroldegiaren moduko zerbitzuetan) Auzoari eragiten dion edozein ekimen edo proiektuk udalerrinari ere eragingo dio. Aukera guztiak aztertu beharko dira, beraz, eta idazketa aurreko diagnosirako herritarren parte hartze gehiena lortu. Kalitate eta kantitatezko espazio publikoak jarri gune honetan eta degradatuagoak dauden guneak suspertu.

✓ LAMIAKO-TXOPOETA

Udalerrriaren hego limitean kokaturikoa, errepideari jarraiki luzeran jarria, ibaiadarrera ematen duen industria gunearekin egiten du muga. Eraikin berriagoak egon arren (hiri berrikuntzaren eraginez) aintzinako auzoa da, dagoeneko kontsolidatutakoa. Pinuetarekin batera, nortasun handien duten Leioako bi auzoak dira. Topografikoki behealdean kokaturik egoteak, udalerriarekiko auzo 'autonomo' izatean lagundu dezake. Txorierrirekin lotuko duen igogailu inklinatuaren eraikuntza daukate egiteke. Parke berri baten proiektu egitasmoa eta mini 'Kultur' batena dauka Udalak aurreikusita.

Hiri berrikuntza aurretik, arazo sozial gehiago zituela esan daiteke, baino gaur egun, jada, ez. Ordenazio longitudinala da lehenengo irakurketa batean ikus daitekeen ezaugarri nagusia

✓ ONDIZ

Elxalde Erditik Txorierrira doan auzoa da. Ondizko dorrea dago bertan kokatua., ermita eta izen bereko parkea. Landa izaera duen etxebizitza eta baserriz eratutako auzoa da., baratzeekin eta inguruan lursailekin. Nahiz eta erdigunetik ez hain urrun egon aldendutako auzo bezala antzematen da, ziurrenik, hain jendeztaturik ez egoteagatik, gau argizatze askorik ez edukitzeagatik, eta dimentsio eta diseinu baldintza egokirik ez duen oinezko ibilbide argirik ez edukitzeagatik. Hala ere, pasabide-auzoa da, Txorierrirekin lotura eratzeke giltzarri dena.

✓ PINUETA

Mendebaldeko mugan kokaturiko auzoa da, Getxoko Romo auzoarekin harreman estua duena, tartean dagoen kalearen alde bat Romorena eta bestea Pinuetarena baitira. Kontsolidatutako auzoa da, nortasun handikoa eta etxebizitza eraikin altuak dituena. Beste auzoekin parekatuta, hemen badaude merkataritza eta zerbitzuak. Espazio publiko urriak ibilgailuentzat aparkalekuez beterik daude. Izan ere, hau da auzoko arazo nagusietako bat: aparkatzearena (gai honek erlazioa badu Getxo aldamenean izatearekin, eta ikusi beharko litzateke aparkatzeko eskakizunaren zenbatekoa den Getxorena, eta zenbat Pinuetarena) Edonola ere, auzoak arazoa, eta honen ondorioak pairatzen ditu.

Biztanleen adinari dagokionez, helduak dira gehienak, nahiz eta gutxika, jende gaztea ere ari da auzora etortzen.

Auzoa aztertzeko garaian, premia handieneko beharrak hauek dira: espazio publikoaren berreskuratzea (aparkamenduarekin zuzenean loturik dagoena) eta etxebizitza eraikinetara irisgarritasuna (gehienek ez baitute igogailurik), biztanleriaren gehiengoaren adinarekin lotutakoa. Aparkatzearen arazoaren azterketak espazio publikoa berreskuratzearen aurretik joan beharko da, zeinak auzoan bizi den jendearen beharren diagnosis beharko duen ondoren, horren arabera, ordenazioa eta diseinuari ekiteko.

✓ TXORIERRI

Ondiz auzotik haratago dago kokatua, Lamiako-Txopoeta auzoaren gainetik. Topografikoki, Lamiako gainean dagoen 'balkoia' da, topografiak udalerriko kota baxuenetara jaitsi aurretik, Lamiakoko frenteari eta errepidearen bestaldean geratzen diren industria gunek eta kaiari tokia emateko. 60-70 hamarkadako etxebizitza blokeak dira, nibelaren kurben arabera ipinitakoak, eraikin artean berdegune txikiekin. Etxebizitza eraikin xumeak dira, kale estu, trafikoa eta ibilgailuak igarotzea zailtzen duten aparkalekuekin kalearen bi alboetara,. Bloke arteko berdeguneek ez dute erabilerarik, nahiko ongi mantendurik egon arren. Gaur egun, auzoaren kota altuenean badago BOE etxebizitzazko erakin bat, non beheko solairuan jende nagusiaren egoitza dagoen aurrealdean plaza antzeko batekin. Auzoak duen espazio publiko bakarra da honokoa.

✓ UDONDO – AKETXE – KANDELA ZUBIETA –SABINO ARANA ETORBIDEA

Sabino Aranaren etorbidea, Aketxe auzoaren ingurunean, metroaren ondoren eraikitako da, eta tranbia pasatzeko ordenatu eta egituratutakoa. Diagnostiko azkar batean ikus daiteke auzoak aktibitatearik ez duela. Oinezkoen mugikortasunerako espazio zabala izan arren, 'bizitza' eta merkataritza falta zaizkio, behe solairu gehienak hutsik daudelarik Egia da, bestalde, metroa, erdigunea eta Leioako kanpusaren loturekin nola garatuko zen zain geratu den gunea dela, orain jada agortua dagoela itxaron tartean egon dena Eusko Jaurlaritzak iragarri baitu ez duela Leioan tranbiarik ipiniko.Honek, eskala globalean bestelako eszenatoki bat irekitzen dio udalerrinari, baina askoz zehatzagoa auzoaren tokiko eskalan, etorkizunari udalerraren beharrei erantzunez egin beharko baitio aurre, metroa eta udalerriko beste guztiaren arteko bidean kokatua egoteagatik; baita ere eta batez ere, auzo modura bere behar eta eskakizun propioei erantzunez, bere biztanleek planteatutako beharretatik abiatuta.

Beste auzoek duten espazio publikoen gabeziarik pairatzen ez badu ere oinezkoen jarraitutasuna bermatuko duten proiektuekin, espazio publikoen sareko egiturekin, segurtasunarekin eta irisgarritasunarekin konpondu beharko ditu bere ingurukoekiko loturak. Metroaren geltokiarekin duen pasabide-topagune guneari arreta berezia jarri beharko zaio.



Nork:

hiri .Dunakaldea



Norekin:



Norentzat:



Noren partaidetzarekin:

